

**KANPO HARREMANETARAKO IDAZKARITZA NAGUSIAK  
EUSKO LEGEBILTZARRARI AURKEZTUTAKO TXOSTENA  
EUSKAL INSTITUZIOEK EUROPAR BATASUNEAN EGINDAKO  
JARDUKETEI BURUZ**

# **AURKIBIDEA**

## **I. ZERGATIK TXOSTEN HAU**

## **II. EUROPAR BATASUNAREN GAUR EGUNGO TESTUINGURUA**

## **III. EUSKAL INSTITUZIOEK 2013an ZEHAR EUROPAR BATASUNEAN EGINDAKO JARDUKETAK**

### **III.1 Eskualdeetako Komitea eta Euskadiren parte-hartzea**

### **III.2 Europar Batasuneko Kontseiluan eta Europako Batzordeko komiteetan izandako parte-hartzea**

### **III.3 Gobernu-ekintzaren ondorioz EBn egindako jarduketak:**

- 1. Bisita instituzionalak**
- 2. Euskadiren hainbat alderdi Europan proiektatzea eta Erkidegoko aktualitateko gaietan posizionatzea**
- 3. Beste bisita eta elkarretaratze batzuk**
- 4. Konferentzia eta debateetan izandako parte-hartzea. Ekitaldiak eta informazio-bilerak antolatzea eta bertara joatea**
- 5. EBren inguruko sare, organizazio eta foroetan egindako lana**
- 6. Europako Erkidegoko zuzenbideari buruzko espedienteak jakinaraztea eta komunikatzea**
- 7. Erkidegoko gaien komunikazioa eta zabalkundea**

## **IV. ETORKIZUNERAKO PROPOSAMENAK**

### **A) Transbertsalki jarduteko proposamenak**

### **B) Sektorialki jarduteko proposamenak**

## I. ZERGATIK TXOSTEN HAU

2013ko azaroan Euskal Talde Popularrak Legez besteko hasierako Proposamen bat aurkeztu zuen, Jaurlaritzak Euskadi eta Europari buruz komunikazio bat prestatzea eta Osoko bilkura monografiko bat egitea proposatzeko.

Azkenik, Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta Euskal Talde Popularra taldeek erdibideko zuzenketa bat itundu zuten aipatutako Legez besteko Proposamen hori aldatzeko. Honela dio itunak:

*Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio prestatu eta bidali dezala Ganberara, hurrengo bilkura-aldian zehar, osoko bilkuran edo batzordean eztabaidatzeko, komunikazio bat euskal instituzioen Europar Batasunaren aurreko jarduketari buruz, non jasoko baitira egoeraren azterketa bat eta jarduketa-proposamen batzuk, aipamen berezia eginez 2013an izandako jarduketari, integrazio europarreko prozesua gauzatzearen eta aitzinatzearen markoan.*

*Era berean, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, 2014tik aurrera, bidali dezala Ganberara, urte bakoitzaren hasieran, osoko bilkuran edo batzordean eztabaidatzeko, urteko komunikazio bat euskal instituzioen Europar Batasunaren aurreko jardunari eta jarduketari buruz".*

Horregatik aurkezten da orain txosten hau, gero, komeni bada, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak tratatuko duena Eusko Legebiltzarraren Europako Gaietan eta Kanpo Harremanen Batzordearen aurreko agerraldian.

Hori dena, Iñigo Urkullu lehendakariak X. Legealdi honetarako xedatutakoa betez, inbestidurako hitzaldian azaldutakoari jarraiki:

*...ekonomiaren bigarren eraldaketa hau burutu nahi dugu Euskadi erreferente bihurtuz Europar ikerketa, teknologia eta garapeneko arloetan...*

*Europaren parte gara, aniztasunarekiko begirunetik abiatuta integratuz doan Europa honen parte. Kultura- eta hizkuntza-aniztasun horren erakusgarri bizia da gure euskal identitatea, gure Erkidego osoa aberasten duena.*

*Hazi den eta garatzen ari den, ekonomikoki, kulturalki, komertzialki eta finantzarioki integratuz doan Europa honen parte gara.*

*...Euroaren eta Europako sistema finantzarioaren parte gara, gure Ekonomia Itunaren eredu propioa ezagutzen, aitortzen eta bere gain hartzen duen sistema horren parte.*

*...Gaur egun, gure errealitatea eta gure erabaki politiko eta ekonomikoak neurri handi batean baldintzatzen dituen Europa batean bizi gara.*

*...Garai berri baten hasieran gaude, eta gu Europari begira gauden bezala, Europa berri hori ere Euskadira begira dago orain.*

Ildo beretik, María Ángeles Elorza Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak Europako Gaietan eta Kanpo Harremanen Batzordean 2013ko martxoaren 5ean egindako agerraldian azaldu zuen:

*Hasteko, nazioz gaindiko esparru batean gaude: Europar Batasunean. Europaren eraikuntzak modelatzen du batasuneko herrialde guztien arauak emateko eta jarduteko markoa, baita gurea ere.*

*... Europa izango da gure Kanpo Harremanetako interesgune nagusia. Europako gaiak eta mugaz gaindiko elkarlana sustatzeko eta koordinatzeko Zuzendaritza bat sortzekotan gara. Europar Batasunaren bilakaeran funtsezkoa izango den garai batean gaude. Otsailean Kontseiluak onartu zuen Urte anitzeko finantza-markoa, Europako Parlamentuak berretsi beharko du. Marko horrek erabakiko du Batasuneko Gobernu finantzarioa 2020ra arte. Horrek markatuko du, halaber, Europaren kohesioa eta ikerketa eta berrikuntzako politika.*

*...Euskadik ahotsa izatea nahi dugu. Ez bakarrik marko berrietatik eratorritako politikak exekutatzeko, baita politika horiek konfiguratzeko ere. Parte aktiboa izan nahi dugu erabakiak hartzeko prozesuan. Eta besteekin batera partaide izan nahi dugu Europa demokratikoagoa eraikitzen. Hori lortzeko, Estatuako Administrazio Orokorriari eskatu behar diogu sakon ditzala autonomia erkidegoek Europako instituzioetan parte hartzeko mekanismoak. .... Parte hartzeko bideak egokitu behar dira, Euskadik benetan eta eraginkortasunez parte har dezan EBko Kontseiluan, gure eskumeneko gaiak eztabaidatzen diren formazioetan.*

*... Ekonomia eta Finantza Kontseiluan (ECOFIN) parte hartzea landu eta sakondu behar dugu bereziki.*

*...Horretarako, Estatuaren eta Euskadiren arteko Europako Gaietarako Alde biko Batzordea berraktibatzea eskatuko dugu. Hori da gai honetan aurrera egin ahal izateko balia dezakegun organoa.*

*... Gainera, CARUEren markoan ere kolaboratu nahi dugu. ...*

*...Bide beretik, Europako instituzioetan euskararen ofizialtasun-maila lortzen saiatuko gara.*

*...Eskualdeetako Komitea. Euskaldunen presentzia eta parte-hartzea bermatuko ditugu Komitearen lanetan eta osoko bilkuretan."*

Bestalde, Nazioartekotzeko Estrategia Markoa 2020 - Basque Country estrategiak, Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak aurtengo apirilean onartuak, ezartzen duenez:

- Nazioartekotzeko Marko Estrategikoaren barruan azpimarratzen du nazioartekotzearen bektoreetako bat Europako markoarekin lerrokatzea dela. Europar Batasunean definitzen dira Euskadin aplikatu beharreko araudiak, han hartzen dira erabakiak eta han debatitzen dira planteamendu estrategikoak eta laneko markoak. Eta haietan Euskadik parte hartu behar du eta entzun egin behar zaio.

- Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren Kanpo Harremanetarako Plan Estrategikoari dagokionez, hirugarren helburu estrategikoa Europa eraikitzen, besteekin batera, partaide eta erantzule izatea da. Era horretan, Euskadiren lidergoa sustatu nahi da Europan, mugaz gaindiko lankidetzaren sendotze, euskal eragileen partaidetza areagotu EBko instituzioetan, proiektuetan eta ekimenetan eta Europako Erkidegoko Zuzenbidea aplikatzen dela zaindu.

Azkenik, 187/2013 Dekretuak, apirilaren 9koak, Lehendakarietzako egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoak, 13. artikuluan, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren eginkizunen artean, honako hauek zehazten ditu:

*e) Europar erakundeei buruzko jardun-politika definitzea, batez ere Europar Batasunari eta Europako Kontseiluari buruzkoa.*

*f) Eusko Jaurlaritzak Europako eskualde-mugimenduan duen ekimena zuzentzea; batez ere, Europako Eskualdeen Batzordean eta Euskadik parte hartzen duen eskualde arteko erakundeetan.*

Bi funtzio horietarako, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak, Europako Gaietarako Zuzendaritza eta Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritza (egoitza Bruselan duena) baliatzen ditu, horiek baitira, azken batean, euskal instituzioek Europar Batasunaren aurrean egiten dituzten jarduketak sortzen eta sostengatzen dituztenak.

Eta koordinatuta egiten dute, baina hainbat planotan, izan ere, Euskadiren EBko Ordezkaritzak ikuspegi sektorialetik egiten duen lan eta Europako Gaietarako Zuzendaritzak ikuspegi horizontalagotik jarduten duen lan.

Jarduketa zehatzei heldu aurretik, erreferentzia labur bat egingo diogu Europar Batasunak orain duen testuinguruari, argiago azaldu ahal izateko euskal instituzioek EBn egindako jarduketak eta etorkizunerako egiten diren proposamen batzuk.

## II. EUOPAR BATASUNAREN GAUR EGUNGO TESTUINGURUA

Krisi finantzarioaren inpaktu globalak ikusarazi digu errealitate ekonomikoak bizkorrago aldatzen direla errealitate politikoak baino. Onartu beharra daukagu gero eta handiagoa den interdependentzia ekonomikoak, politika mailan ere erantzun irmoagoa eta koherenteagoa eskatzen duela.

Azken bi urte hauetan milioika lagun geratu dira lanik gabe, gazteak batez ere. Zor handia sortu da, urte askoan karga latza izango dena, eta presio berriak egin dira gure gizarte-kohesioaren gainean. Gainera, funtsezko egia batzuk nabarmendu dira Europako ekonomiak gainditu beharko dituen erronkei buruz. Eta, bitartean, ekonomia globalak aurrera darrai. Krisi hau kontuz ibiltzeko dei bat da, iritsi da garaia onartzeko «gauzak dauden bezala uzteak» atzera eramango gaituela, pixkanakako gainbeherara, ordena global berriaren bigarren ilaran kokatzera. Europak ematen duen erantzunak erabakiko du gure etorkizuna.

2014ko lehenengo egunetik, Euroguneak ongietorria eman zion Letoniari. Hango moneta, latsa, erabiltzeari utzi diote eta Letonia da moneta bakarra bere egin duen EBko hemezortzigarren estatua.

Era berean, urte-hasieran iraungi ziren errumaniar eta bulgariarrei Batasuneko gainerako estatuetan lan egiteko ezarritako mugak, bi estatu horiek 2007an Europar Batasunean sartu zirenean Erkidegoko bazkide batzuek inposatu zizkieten neurri iragankorrak amaituta.

2014ko urtarriletik ekainera bitartean, Greziako lehendakaritzak helburu nagusi izan ditu hazkundea, enplegua, kohesioa edo Eurogunea ukitzen duten beste alderdi batzuk, eta, halaber, migrazioak, mugikortasun-politikak eta itsas politikak kudeatzea, ekaineko Europako Kontseiluan Itsas Politikari buruzko Estrategia erabaki ahal izateko.

Urtarrilean, EB negoziazioetan hasi da Serbiarekin, 2012tik hautagai den herrialde hori EBn sartzeko. Bestalde, Albaniak ekainera arte itxaron beharko du EBk herrialde balkaniar horri hautagai estatusa ematen dion jakiteko, eta horrela EBn sartzea dagoeneko negoziatzen ari diren herrialdeekin (Montenegro eta Turkia) edo negoziatzen hasteko zain daudenekin (Mazedonia) elkartzeko. Eta ez dugu ahaztu behar 2014ko maiatzean hamar urte beteko direla EBk egindako zabalkuntza handiena burutu zenetik, hau da, Europa erdialdeko eta ekialdeko hamar herrialde bere baitan hartu zituenetik.

2014ko azaroaren 1ean, Europar Batasuneko Kontseiluak "gehiengo bikoitza"ren sistema berria ezarriko du erabakiak hartzeko prozesuan, orain arteko boto-haztapenaren sistema alde batera utzita. Hortik aurrera, Batasuneko herrialdeen %55 eta biztanleen %65 bildu beharko dira erabaki bat hartu ahal izateko. Gehiengo kalifikatu indartua behar denean (ez dago Batzordearen proposamenik...), gehiengo hori osatu beharko dute gutxienez Estaturen %72k, eta biztanleen %65 ordezkatu beharko dute. Hala ere, 2017ko martxoaren 31ra arte, edozein Estatu kidek eskatu ahal izango du erabakia aurreko sistemaren arabera, Nizako boto-haztapenaren arabera, har dadila.

2014ko azaroan sartuko da indarrean banku-begirale bakarria ere. Hortik aurrera, Euroguneako 130 banku handienak gainbegiratuko dituztenak ez dira izango EBko estatuetakoko banku zentralak, eginkizun hori Europako Banku Zentralak (EBZk) hartuko baitu. Banku-batasunerako lehenengo urratsa izango da, oraindik bide luzea egin beharko den arren erabateko batasunera iritsi arte.

Apirilean Europako Parlamentuak argi berdea eman dio bankuak suntsiarazteko mekanismo bakarrari. Mekanismo hori gordailuen garantiako direktibaren erreformak onartua eta erreskatatzeko eta suntsiarazteko direktibak bermatua da. Maiatzeko hauteskundeen ondoren osatutako Europako Parlamentu berriak burutu beharko du banku-batasunaren prozesua.

Nabarmendu behar da aldaketa instituzionalak funtsezkoak izango direla 2014ko urte honetan. Europako Parlamentua eta Europako Batzordea (Atzerri eta Segurtasun Politikako Goi Ordezkaria barne) berritzeaz gain, Europako Kontseiluko Lehendakaritza ere berrituko da.

2014ko maiatzean (hilaren 22an estatu batzuetan eta 25ean beste batzuetan) Europako Parlamenturako hauteskundeak izan ziren. Zortzigarren legealdia izango den honetan, orain arte bezala bozketa unibertsal eta zuzenekoaren bidez eurodiputatuak hautatzeaz gain (751 diputatu guztira, 54 Espainiako estatukoak), lehenengo aldiz Europako alderdi politiko bakoitzak bere hautagaia aurkeztu du Europako Batzordeko lehendakartzarako. Berritasun horri esker, Europako herritarrek parte hartu ahal izan dute "Europar Batasuneko Lehendakaria" hautatzen, eta horrek gure instituzioen legitimitasun demokratikoa indartu du.

2009ko abenduaren 1ean Lisboako Tratatu indarrean sartu zenetik, sekula baino botere handiagoa, eskumen gehiago eta erantzukizun handiagoa dituen Europako Parlamentuan ordezkari izango ditugunak aukeratu ahal izan ditugu europarrok.

Hauteskunderi dagokienez, funtsezkoa izan da herritarrak konbentzitzea beren botoak duen garrantziaz. Gaur egun, Europatik datozen legeen %80 inguruk eragina dute herritarrengan. Alde horretatik, Europar Batasunak 2014an heldu beharko dion erronka handiena da, azkeneko hauteskundeen emaitzak ikusita batez ere, herritarrek gero eta gehiago erakusten duten EBrekiko atxikimendurik ezaren ondorioz ugaltzen ari den euroeszeptikotasunari eta populismoari aurre egitea. Horretarako, euskal instituzioek 2014ko egitekoen artean izango dute Europa hobeto komunikatzearena.

Bestalde, urteetan krisian egon ondoren eta Estatu Batuekin, Txinarekin eta beste potentzia emergente batzuekin lehian jarraitu ahal izateko xedearekin, Europako Batzordeak Europa 2020 Estrategian aurkezten ditu Europako, eta baita estatu kide guztietako, instituzioen jarduketan gidari izan behar duten helburuak eta ekimenak. Horretarako, organo guztien ahaleginak elkartu beharko dira eta elkarrekin koordinatuta lan egin, hartzen diren erabakiak ahalik eta zuzenenak eta egokienak izan daitezen guztientzat.

EBk definitu behar du 2020an non egon nahi duen, zein leku hartu nahi duen. Xede horrekin, Batzordeak honako helburu nagusi hauek proposatzen dizkio EBri:

- 20 eta 64 urte bitarteko herritarren %75ek lana eduki beharko luke.
- EBko BPGaren %3 I+Gn inbertitu beharko litzateke.
- «20/20/20» helburua lortu beharko litzateke klima eta energiaren arloetan (berotegi-efektuko gasak %20 murriztea; energia-kontsumoaren %20 baliabide berriztagarrietatik lortzea; eta efizientzia energetikoa %20 hobetzea). Eta, horretarako aukerarik izanez gero, emisioak %30 murriztea.
- Eskola uzten dutenen ehunekoak %10etik beherakoa izan beharko luke, eta belaunaldi gazteenaren %40k, gutxienez, goi mailako ikasketa osoak izan beharko litzuke.
- Pobrezia-arriskuak 20 milioi pertsona gutxiagori egin beharko lieke mehatxu.

Hazkunde zentzudun, jasangarri eta integratzaileko estrategia. Batzordeak bost helburu kuantifikagarri proposatu dizkio EBri 2020rako: enplegua, ikerketa eta berrikuntza, klima-aldaketa eta energia, hezkuntza eta pobreziaren kontrako borroka. Helburu horiek gidatuko dute prozesua, helburu nazional bihurtuko dira, hartu behar dugun bidea erakutsiko digute eta gure arrakasta nola neurtu adieraziko digute.

Hiru gako nagusik inspiratu dute Estrategia hori:

- Hazkunde zentzuduna: jakintzan eta berrikuntzan oinarritutako ekonomia bat garatzea.
- Hazkunde jasangarria: baliabideak modu eraginkorragoan erabiliko dituen ekonomia bat, ekologikoagoa eta lehiakorragoa, sustatzea.
- Hazkunde integratzailea: enplegu maila handiko ekonomia bat sustatzea, gizarte- eta lurralde-koherentsia dituen.

Alde horretatik, nabarmendu behar dugu Bruselatik etorriko diren diruak Europa 2020 Estrategiak ezarritako helburu tematikoak betetzeko inbertitu beharko direla zehazki: hazkunde zentzuduna, hazkunde jasangarria eta hazkunde integratzailea.

Neurri horiekin denekin batera, benetako merkatu bakarra lortzen laguntzeko neurriak ere hartu beharko dira. Horretatik, Batzordeak beste proposamen bat ere aurkeztu zuen, telekomunikazioak, energia eta garraioa bezalako sektoreetan merkatu batura heltzeko bidea prestatzeko, horrek ekarriko lituzkeen onura ugariak kontuan izanda.

Europar Batasunaren testuinguruan martxan jarriko diren neurri nagusien artean aurkituko ditugu:

- Nekazaritzako politika bateratu (NPB) berria 2014ko urtarrilaren 1ean hasi zen funtzionatzen, eta funtsak Estatu kideen eta nekazarien artean modu ekitatiboagoan banatzea du helburu. Europako Parlamentuak lortu du laguntzak nekazari aktiboengana bideratzea eta malgutasun handiagoa izatea ingurumen-neurriei baldintzatutako zuzeneko ordainketetan.
- Enplegua hobetzeko asmoarekin sortutako Europako Gizarte Funtsak, kohesio-politikarako jarritako funtsen ehuneko 23a jasoko du gutxienez.
- Ikerketari eta berrikuntzari laguntzeko Horizon 2020 programa, bere aurrekoa baino zabalagoa izango da eta 70.200 milioi euroko aurrekontua izango du. Europar Batasuneko aurrekontuaren ehuneko 7a hartuko du 2014-2020 epealdian, aurreko zazpiurtekoan, 2007-2013 epealdian, izandako ehuneko 5a baino gehiago, beraz. Programa horrek enpresei, ikerketa-taldeei eta erabiltzaileei parte hartzeko aukera ematen die, proiektuak aurkeztuz. Alde horretatik, gogoratuko dugu amaitu berri den 7. Programa Markoan Euskadik izandako parte-hartzea bereziki garrantzitsua izan dela; izan ere, 2013ko urriaren 25era arte, 1.241 euskal agente teknologikok parte hartu dute Europar Batasunak finantzatutako 865 proiektutan, dagoeneko amaitu diren 467 deialdietan, eta 376 milioi euroko finantzaketa lortu dute (guztira zeuden 3.400 milioi euroetatik);
- unibertsitateen mugikortasuneko Erasmus programa, ikasi, praktikak egin edo gaitasun profesional berriak lortu nahi dituzten 13 eta 30 urte bitarteko gazteen mugikortasuna sustatzeko xedea duena, ehuneko 58 igoko da 2014-2020an aurreko epealdiarekiko;



- LIFE programa berriak 3.460 milioi euroko aurrekontua du 2014 eta 2020 bitarterako.

Europa 2020 izango da XXI. mendeko Europan aurrera egiteko behar den tresna ekonomiko eta soziala. Langabezia-tasa oso handia duen Europa honi, etengabe larriagotzen ari den krisi honetatik irteteko liderrek proposatzen duten estrategiaren aurrean hautestontzietan gero eta errebeldia handiagoa erakusten duen Europa honi, erantzun ahal izateko. Bertako herritarren bizi-mailan sekula ezagutu ez diren murrizketak eginez Europa jokoaz kanpo utzi duen krisi honi erantzun ahal izateko.

Oso disgustura dauden herritarren Europa bat bilbatzen ari da; tradizionalki nagusi izan diren partiduak sinesgarritasuna galtzen ari dira eta botoa alderdi sateliteetan sakabanatzen ari da, akordioak egiteko aukera gero eta zailago bihurtuz. Hazkunderako agenda sinesgarri eta kontsistente bat aukeratu ezean, EB betiko haustearen alde eta funtsezko politika askotan nazioen subiranotasuna berreskuratzearen alde dauden alderdi estremisten erlauntza bilakatzeko arriskua du Europak.

Europar Batasuna, 500 milioi biztanle baino gehiagorekin, munduko merkatu handiena da eta Estatu Batuen eta Txinaren lehiakide indartsuena. Baina hori baino askoz gehiago da. Nazioarteko merkataritza, oinarritzko eskubideak, krisia arintzeko laguntza, auzokoekiko harreman estuak eta demokraziaren defentsa dira Europak munduaren gainerako zatiarekin duen konpromisoaren erakusgarri ugarietako batzuk.

Krisi-urte hauek balio izan digute hausnartzeko eta ohartzeko zenbat bide dagoen oraindik egiteko Europaren proiektuan. Hala ere, Europa hau indartuta atera dadin, nahitaezkoa da herritarrek parte hartzea eta proiektu honekin identifikatzea. Eta, alde horretatik, herrialdeek, eskualdeek eta Euskadik funtsezko papera dute.

Azkenik, aipatu beharrekoak dira Europar Batasuneko eskualde batzuetan, Eskozian eta Katalunian esaterako, gertatzen ari diren mugimenduak, Batasunaren barruan gobernatzeko beste era bat sortzen ari dela pentsaraztera eramaten dutenak. Aurtengo irailaren 18an Eskozian egitekoa den independentziari buruzko erreferendumaren garapenak eta emaitzak, eta Kataluniako kontsulta-prozesuaren eboluzioak inflexio-puntu bat marka lezake Europar Batasunaren baitan gobernantza ulertzeko eran. Barneko zabalkuntza edo maila anitzeko gobernantza (orain dela urte batzuk hasita Europako Batzordea iradokitzen ari dena) bezalako kontzeptuak Europako instituzioen agendan sartuz joan litezke.

### **III. EUSKAL INSTITUZIOEK 2013an ZEHAR EUROPAR BATASUNEAN EGINDAKO JARDUKETAK**

Euskal instituzioek Europar Batasunean egindako ekintzetan parte hartu duten agenteen, jarduketan eta gobernu-politiken aniztasuna kontuan izanda, oso zaila da hain kasuistikoa den informazioa sistematizatzea.

Alde horretatik, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian egoki iritzi diogu euskal instituzioek 2013ko urtean egindako jarduketak irizpide honen arabera aztertzeari:

III.1 Eskualdeetako Komitean parte hartuz egindako jarduketak, hori baita Europar Batasunaren barruan, Batasunaren Tratatuetan ezarritakoaren arabera, eskualdeek ordezkariak izan dezaketen organo bakarra

III.2 Europar Batasuneko Kontseiluan eta Europako Batzordeko komiteetan parte hartzeko egindako jarduketak. Europar Batasunaren inguruko gaietarako 2004ko abenduaren 9ko konferentziako akordioen baitan sartzen dira jarduketa horiek.

III.3 Europar Batasunean egindako jarduketak Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen eta interesen ondorioz gobernu-ekintzaren hainbat arloren inguruan.

Alde horretatik, azpimarratu nahi dugu, lehen ere adierazi dugun bezala, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak Europar Batasunean egiten duen lana Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritzarekin eta Europako Gaietarako Zuzendaritzarekin koordinatuta egiten duela. Lan horren ezaugarri nagusiak dira Europako gaiekiko profesionalizazio-maila, jarduketan balio erantsi handia eta Jaurkitzako sailei, Foru Aldundiei, euskal Udalei et Euskal Autonomia Erkidegoko beste instituzio eta organo batzuei eta euskal agente sozio ekonomiko nagusiei, hala nola GKEei, zentro teknologikoei, unibertsitateei eta abarri, zerbitzu emateko espiritua.

Hori dena Europar Batasuneko instituzio eta organoetan eta Europako sareetan euskaldunen presentzia indartzeko asmoarekin eta, azken finean, Euskadik Batasunean duen posizionamendua aberasteko xedearekin.

### III.1 ESKUALDEETAKO KOMITEA ETA EUSKADIREN PARTE-HARTZEA

Eskualdeetako Komitea (aurrerantzean ESKO) EBko eskualde eta udal guztien multzoa ordezkatzen duen batzar politikoa da. Maastrichteko Tratatuaren ondorioz sortu zen, 1992an, eta 1994ko martxoan ekin zion ibilbideari. Harrezkero, gero eta kontsulta-botere eta eragin handiagoa du, bai Erkidegoko legediari buruzko kontsultak jasotzeko, bai Europako politikako gai-zerrendako arazo garrantzitsuenak ebazten laguntzeko.

Guztira 353 kide titular ditu (eta 353 ordezkari): Batasuna osatzen duten 28 Estatuetakoko eskualdeetako lehendakariak, alkateak, zinegotziak, kontseilariak, diputatuak, etab. Horien egitekoa Bruselara joatea da ordezkatzen dituzten herritarren interesak defendatzera. Euskadiko kide titularra Lehendakaria da eta ordezkaria Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia.

Erkidegoko instituzioek ESKOren iritzia eskatu behar dute nahitaez, eskualdeko edo tokiko eskumenei dagozkien edo horiek ukitzen dituzten jardun-eremuak direnean. Hauek dira nahitaez kontsultatu beharreko esparruak: garraioa, enplegua, gizarte-politika, Europako Gizarte Funtsa, hezkuntza, lanbide-heziketa, gazteria eta kirola, kultura, osasun publikoa, Europa barneko sareak, ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioa, ingurumena eta energia, eta horrekin estalita geratzen dira EBren jardun-eremu gehienak. Nahitaez egin beharreko kontsultez gain, Kontseiluak, Batzordeak eta Europako Parlamentuak nahi dutenean kontsulta egin diezaiokete ESKOri eta ESKOk berak ere iritzia eman lezake bere kabuz.

Iritzi horiek Europako araudiari buruzko irizpen politikoaren bidez ematen dira nagusiki, eta irizpen horiek gero Batzordera, Kontseilura edo Europako Parlamentura bidaltzen dira. Irizpenak emateaz gain, ESKOk txostenak egiten ditu eta ebazpenak ematen ditu.

Parlamentu baten antzera funtzionatzen du ESKOk, aholkua emateko kontsulta-organo soilak izan arren. Urtean osoko 6 bilkura egiten ditu eta honela dago osatuta: Lehendakari bat, Lehen Lehendakariorde bat, beste 28 Lehendakariorde (Batasuneko estatu bakoitzeko bat), 62 kidek osatutako Mahai bat, 6 batzorde iraunkor (eta beste hainbeste "ad hoc" batzorde, aldi bereko premien arabera), lantaldeak, lau talde politiko, delegazio nazionalak eta eskualde arteko lobby taldeak.

#### **Euskadik 2013an zehar Eskualdeetako Komitean izandako parte-hartzea.**

ESKOk kide euskaldunaren bidez Europako araudiari zuzenketak aurkeztea da parte hartzeko eta euskaldunen jarrera Erkidegoko instituzioei helarazteko bide nagusia. Horretaz gain, beste jarduerak batzuetan ere parte hartu dute Euskadiren beste ordezkari batzuek:

- Europako etorkizuneko arau-proposamenei buruzko iritzia azalduz
- Adu Taldeetan eta Lobby Taldeetan parte hartuz
- gure egoera ekonomiko eta soziala hobetzeko Euskadin egiten diren politika eraginkorren edo praktika onen ereduak erakutsiz, Europako gainerako eskualdeekin batera, elkarrekin eta elkarrengandik ikasteko bidean

**1. Eranskinen** ikus daitezke Eusko Jaurlaritzak 2013an izan duen parte-hartze presentziala, parte hartu den ekitaldia, ordezkariaren izena, jarduketaren mota eta data zehazten dituen laburpen-taula batean.

Jarraian aipatuko ditugu Eusko Jaurlaritzak Eskualdeetako Komitean egindako jarduketan artean gure ustez garrantzitsuak direnak:

1. Lehenik, **2013ko Osoko Bilkurei** dagokienez, Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako zuzenketak. Jaurlaritzak osoko 5 bilkuratan parte hartu du, 76 zuzenketa landu ditu, horietatik 51 aurkeztu ditu, eta aurkeztutakoetatik 34 onartu dituzte.

**2. Eranskinen** ematen dira zuzenketa horien xehetasunak: Irizpenaren izena; Eusko Jaurlaritzako sailek landutako zuzenketen kopurua; ESKOn aurkeztutako zuzenketak; eta azkenean onartuak izan diren zuzenketak.

Bigarrenik, zuzenketa bat aurkeztu ahal izateko ESKOko beste bost kideren sinadura behar denez, 2013an hainbat eskualde eta udalek zuzenketa-proposamenak bidali zizkioten Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari, 458 zuzenketa-proposamen guztira, Jaurlaritzaren babesa lortzeko eta horrela zuzenketak elkarrekin aurkeztu ahal izateko. Jasotako guztietatik, 247ri eman zitzaizen babesa, hau da, hartutako zuzenketa-proposamenen %54ari.

**3. Eranskinen** ikus daitezke beste eskualde batzuek landutako eta Euskadirekin batera aurkeztutako zuzenketak.

Azkenik, aipatu beharrekoa da, Eskualdeetako Komitearen jarduera guztia aurrera eramateko, aldizka elkartzen direla kideak, talde politikoetan nahiz delegazio nazionaletan. Horregatik, Eusko Jaurlaritza ALDE Talde Politikoaren prestamen-bilera ia guztietara joan da.

**2. Osoko Bilkurekin** batera, Eskualdeetako Komitearen baitan egiten den beste jarduera-bloke garrantzitsu bat **Subsidiarotasunaren Defentsa** da.

2009ko Lisboako Tratatuak ardura gehiago eman zizkion ESKOri subsidiarotasuna zaintzeko, eta printzipio hori ez betetzeagatik Europako Justizia Auzitegian errekurtsioa jartzeko legitimatu zuen.

Horren ondorioz, ESKOk ematen dituen irizpen guztietan berariaz aipatu behar da subsidiarotasuna betetzen dela eta gobernu-maila desberdinen arteko eskumenen oreka errespetatzea zaindu behar da, bete ezean, aipatutako bide judiziala erabiltzea justifikatuko bailitzateke.

Gainera, badaude subsidiarotasuna defendatzeko beste tresna batzuk ere, hala nola:

- Kontsultak:

ESKOK, Europako Batzordearekin batera, Europako arauen kopuru jakin bat aukeratzen du Subsidiarotasunaren azterketa exhaustiboa egiteko. 2013an, honako hauek parte hartu du Eusko Jaurlaritzak:

- Erkidegoko arauen lurralde-inpaktuaren ebaluazioa (2013ko martxoa)
- Hondakinei buruzko Europar Batasuneko legeria (2013ko maiatza)
- Portuei buruzko paketea (2013ko uztaila)
- Kontratazio publikoaren arloko fakturazio elektronikoa (2013ko iraila)

- Aditu Taldeak

2012ko irailen Eusko Jaurlaritza aukeratu zuten ESKOko aditu teknikoaren pullean parte

hartzeko Subsidiarotasunaren inguruko edozein erabaki hartzeko. Zehazki, Talde horren egitekoa Subsidiarotasunaren Jarraipen Sarearen maila politikoko aditu taldearen jarduerak eta ESKOren kontsulta-lana bermatzea da. Oraingo aditua Mikel Anton Zarragoitia da, Europako Gaietarako zuzendaria.

- Gailurrak:

2013ko abenduaren 18an egin zen Subsidiarotasunari buruzko Europako VI. Gailurra Berlingo senatuan. Gailur hori 2 urtez behin egiten da; aurrekoa, 2011koa, Bilbon izan zen.

**3. Eskualdeetako Komiteko foroetan euskal ordezkariak aurkeztutako ponentzien bidez,** Eusko Jaurlaritzak zuzenean hitzez azaldu ditu bere politikak Bruselan egindako goi mailako mintegi espezializatuetan, aktualitateko gaietan aurrera eramandako praktika onen adibide gisa, eta esperientziak elkarrekin trukatzeko, elkarrengandik ikasteko eta eskualdeek eta udalek Europaren helburuak lortzen laguntzeko testuinguruan (Ikus **1. Eranskina**).

**4. Funtsezko gaietako kontsulta espezifikoen eta praktika onen aurkezpenaren arloan,** azpimarratzekoa da ESKOk, Europako Batzordearekin batera, kontsulta horiek antolatzen dituela eskualde eta toki mailan gauzatzen ari diren politikak ezagutzeko, prestatzen ari diren Erkidegoko araudi berriaren ikuspegia zehazteko eta EBko lurraldeetan nolako inpaktua izan dezakeen zehazteko.

Kontsulta horietako batzuk Europa 2020 Estrategiako ekimen enblematikoei buruzkoak dira, 2014an egitekoa den erdibideko berrikuspenari begira. 2013. urtean, 8 galdetegiri erantzun zaie eta praktika onen 5 adibide aurkeztu dira idatziz.

4. Eranskinean ikus daitezke 8 galdetegi horien gaiak eta datak, eta Euskadik ESKOn aurkeztu dituen praktika onen 5 adibideak, Europako beste eskualde eta udal batzuentzat eredu izan litezkeelakoan.

**5. Azkenik, ESKOren barruan** hainbat gairi buruzko **taldearteetan** parte hartzen du orain Euskadik, hala nola:

- REGLEG (Legegintzako Eskumena duten Eskualdeak) – CALRE (Legegintzako Eskumena duten Parlamentuak) taldeartea.
- Automobilaren industriaren taldeartea
- Osasunaren taldeartea

### **III.2 EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUAN ETA EUROPAKO BATZORDEKO KOMITEETAN IZANDAKO PARTE-HARTZEA**

Europar Batasunaren inguruko gaietarako 2004ko abenduaren 9ko konferentziako akordioen babesean abiatu zen parte-hartze hori, eta horrek bidea ematen digu txosten honetako puntu honetan Espainiako estatuan Erkidegoko gaiak tratatzeko dauden eta Euskadi ukitzen duten foroak aipatzeko.

Bi foro horizontal daude Autonomia Erkidegoek Europako gaietan parte hartzeko, konferentzia sektorialetan gai espezifikoak tratatzea eragotzi gabe, eta bietan parte hartzen du Euskadik.

Foro horiek dira:

- Europako Erkidegoetako gaietarako Estatuko Administrazioaren – Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko Bitariko lankidetzabatzordea.
- Europar Batasunaren inguruko gaietarako konferentzia (CARUE)

2013an zehar Bitariko Batzordeak ez du bilera bat ere egin. Eusko Jaurlaritza behin eta berriz saiatu da Batzordea bil zedin 2013ko udaren ondoren, foro horretan debatitzeko moduko eta debatitu beharreko hainbat gai daudela ikusita. Baina saio horiek, orain arte behintzat, huts egin dute, aldiko dagokion Ministroaren agenda-arazoak direla-eta.

Europar Batasunaren inguruko gaietarako konferentzian (CARUE) Estatuko Administrazio Orokorreko eta Autonomia Erkidegoetako ordezkariak elkartzen dira, eta foro horretan artikulatzen dira horizontalki Autonomia Erkidegoek Europako Erkidegoko gaietan parte hartzeko dituzten sistemak.

2013an zehar, aurreko urteetako joerari jarraituz, apenas izan du jarduerarik CARUEk. Izan ere, Konferentziaren Osoko Bilkurarik ez da egin 2011ko otsailaren 7tik, Barne-erregelamenduak gutxienez urtean birritan egin behar dela ezarri arren. Eta Konferentziaren laneko organoa, Koordinatzaileen Batzordea, behin bakarrik bildu zen 2013an, apirilaren 9an.

Bi foro horien jarduera ia hutsalak nolabait aditzera ematen du Estatuko gobernuaren interesik eza Autonomia Erkidegoen parte-hartzea sustatzeko, eskumena eta interesa kontuan izanda, gobernuaren jarduera-agendan sartuta egon beharko luketen Europar Batasuneko gaietan.

Foro horren baitan, jarraian xehetasunez azalduko ditugun bi gai daude, autonomien parte-hartzean duten garrantziagatik eta, zehazkiago, Euskal Autonomia Erkidegoko instituzioek Europar Batasunean egiten dituzten jarduketei erreparatuta.

## **1. Eusko Jaurlaritzaren (eta Foru Aldundien) parte-hartzea Europar Batasuneko Kontseiluan**

2004ko abenduaren 9an, lehen aipatutako Europar Batasunaren inguruko gaietarako konferentzian hain zuzen ere, akordio batzuk hartu ziren Autonomia Erkidegoek Europar Batasuneko Kontseiluan parte hartzeko mekanismoak ezartzeko.

Akordio horiei esker, Autonomia Erkidegoek Europar Batasuneko Kontseiluko lau formaziotan parte hartu ahal izan dute: Nekazaritza eta Arrantza, Ingurumena, Enplegua, Gizarte Politika, Osasuna eta Kontsumitzaileak eta Hezkuntza, Gazteria eta Kultura.

Aurrerago, 2010ean, Kontsumoaren eta Jokoaren Antolamenduaren arloetako parte-hartzea ere ireki zen Lehiakortasunaren formazioaren barruan. Gainera, Lisboako Tratua indarrean sartu zenean, Kirola ere EBko Kontseiluak Autonomia Erkidegoen parte-hartzerako irekita dauzkan formazioetako batean sartu zen, formazioari Hezkuntza, Gazteria, Kultura eta Kirola izena emanda.

Azkenik, Euskadik ECOFINen lantaldeetan ere parte hartzen du Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien bitartez, Euzko Alderdi Jeltzaleak eta Espainiako Alderdi Sozialistak (PSOE) egindako akordio baten ondorioz.

2005etik aurrera, Kontseiluko hainbat formaziotan hartu du parte Euskadik momentu eta egoera desberdinetan, dela Osoko bilkuretan, dela dosierrak prestatzen dituzten lantaldeetan. Era berean, ahal izan denean, euskal kontseilariak euskaraz egin dute beren mintzaldia.

2013an Euskadiri egokitu zaio EBko Nekazaritza eta Arrantza Kontseiluan autonomien ordezkari izatea lehen urte erdian. Denbora horretan, 46 bileratan izan da Nekazaritzan, lantalde desberdinetan banatuta. Arrantzan, Barne eta Kanpoko Arrantzako Lantaldeen 31 bileretan izan da, Kontseiluko buru Irlanda zela.

**5. Eranskinean** ikus daitezke Europar Batasuneko Kontseilu horretan bilerak egin dituzten Lantaldeak, eta bilera bakoitzaren data.

Bestalde, 2013an, lehen ere aipatu den bezala, Europar Batasuneko Ekonomia eta Finantza Kontseiluko (ECOFINeko) Lantaldeetan ere parte hartu da. Foro horietako parte-hartzea Zerga-Kideketarako Sailak gidatzen du. Organo horrek Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak biltzen ditu.

Honako hauek dira Euskal Autonomia Erkidegoak parte hartzen duen Lantaldeak:

1. D4 taldea, Zerga kontuei buruzkoa, bi formazioetan banatua:
  - zeharkako zergak. BEZari buruzko gaiak -BEZ aitortzen normalizatua, iruzurraren aurkako borroka, bonuen tratamendua-, energiaren fiskalitatea, finantza-transakzioen gaineko zerga eta horrelako gaiak tratatzen ditu.
  - zuzeneko zergak. BICCIS –sozietate-zergaren zerga-oinarria– zerga arloko lankidetzaren administratiboa eta informazio-truke automatikoa eta sozietate nagusi eta filialei aplikatzeko erregimen erkidea tratatzen ditu, besteak beste.
2. D5 taldea, Jokabide Kodea, enpresen fiskalitateari buruzkoa eta dagokion azpitaldea.

**6. Eranskinean** ikus daitezke 2013an Euskadik parte hartu duen ECOFINeko Lantaldeen bilerak.

Euskadik Europar Batasuneko Kontseiluko aipatu formazio horietan izandako zuzeneko parte-hartzeaz gain, autonomien ordezkariak beste Autonomia Erkidego batzuei dagokien EBko Kontseiluko formazioetan ere segimendu zabala egin da Erkidego horien parte-hartzeari eta ordezkariari buruz.

## **2. Euskadiren parte-hartzea Europako Batzordeko komiteetan.**

Europar Batasunaren inguruko gaietarako 1997ko konferentzian Autonomia Erkidegoek hartutako akordio baten barruan sartzen da Euskadik Europako Batzordeko komiteetan duen parte-hartzea. Orduetik hasita gaur arte, Autonomia Erkidegoek Europako Batzordeko komite batzuetan parte hartu dute garai desberdinetan.

Akordio horrek ezartzen du, labur esanda, ordezkariak izango dela Autonomia Erkidego bat –gainerako 16 Erkidegoen eta 2 Hiri Autonomoen ordezkariak– esleitura daukan Komiteek aldezturik erabakitako epealdian egiten dituzten bileretara joatea (Bruselara normalean).

Autonomia Erkidego ordezkariak konpromisoa du Komiteek egiten dituzten bileretara joateko, gainerako Autonomia Erkidegoei bilera horiei buruzko informazioa eta fotokopiak emateko eta, ordezkariak-aldia amaitzen denean, ordezkariak izatea egokitzen zaion hurrengo Erkidegoari "testigua pasatzeko". Alde horretatik, Autonomia Erkidego bati Komite bateko ordezkariak esleitzen zaionean, pertsona bat izendatu behar du ordezkariak horrek dakarren konpromisoa bete dezan. Ordezkari autonomikoa esaten zaio pertsona horri.

Ordezkari autonomikoarekin batera, ordezkari sektorialaren figura ere badago, hori da autonomien ordezkari ez den Autonomia Erkidego bakoitzak izendatzen duen pertsona Komiteek egiten dituzten bilerekin buruzko informazio jaso dezan, etab.



Orain arte, ordezkari hori hiru epealditan egikaritu da, Euskadi Komite eta une desberdinetan ordezkari izan den garaian.

- Lehenengo epealdia (1998-2002): Estatuak 55 Komitetan parte hartzeko bidea ireki zuen. Orduan 400 Komite inguru zeuden guztira. Garai hartan, gobernu arlo desberdinetako 13 Komitetan izan zen ordezkari Euskadi.
- Bigarren epealdia (2003-2006): Epealdi horretan 95 Komitetan parte hartzeko aukera eman zen. Euskadiri 14 Komite esleitu zitzaizkion guztira.
- Hirugarren epealdia (2007-2011): Hirugarren epealdi horretan, akordioa berri zenean 2007. urtea oso aurreratua zegoenez, aurreko epealdiko ordezkari luzeak erabaki zen, eta bigarren epealdia 2008tik aurrera hasi zen, 2011ra arte. Euskadiri 22 Komitetako ordezkari esleitu zitzaion, baina azkenean 23 izan ziren, EMAS Komitea (ingurumena) gehitu zenean.

Hainbat arrazoi zirela medio, 2007-2011 epealdi horren iraupena 2012ra luzatu zen, eta, ondorioz, 2011n Komite batzuetako ordezkari zuten Autonomia Erkidegoek Komite horietako ordezkari izaten jarraitu zuten, bestelako agindurik eman arte.

Esan liteke 2013. urtea trantsizioa izan zela Komiteetako parte-hartzeari dagokionez.

Europar Batasunaren inguruko gaietarako konferentziako Koordinatzaileen Batzordeak Madrilen 2013ko apirilaren 9an egin zuen bileran, Autonomia Erkidegoek parte hartzeko irekitako Komiteak beste era batean banatzeko akordioa iritsi zen. Ordura arte I+G arloan, zehazki 7. Markokoa, sartutako Komiteen banaketa etenda uztea erabaki zen, eta orain Horizon 2020 testuinguruan daude.

Banaketa berria (Horizon 2020 arloko Komiteak kontatu gabe, beraz) 12 Komite esleitu zitzaizkion Euskadiri (2013-2017 epealdian, momentu desberdinetan ordezkari izateko). 2013an, kontuan izanda Komiteetako parte-hartzea, kasua izan denean, urte horietako udatik aurrera bakarrik gauzatu ahal izan dela, Euskadik parte hartu du:

- Klima Aldaketari buruzko Komitearen bost bileratan.
- Nekazaritzako Kontabilitate Sareari buruzko Komitearen bilera batean.
- Itsas Segurtasunari eta itsasontzien kutsadura prebenitzeari buruzko Komitearen bilera batean.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoak ordezkari autonomikoa egikartzeko izendatutako pertsonak bidali diete gainerako Autonomia Erkidegoetako kontaktuei egindako bilerei buruzko informazioa eta dokumentazioa, Europar Batasunaren inguruko gaietarako konferentziako akordioaren baitan hartutako konpromisoak betez.

Eta, era berean, ordezkari autonomikoa beste Autonomia Erkidego batzuek duten Europako Batzordeko komiteetarako ere izendatu dituzte arduradun sektorialak Jaurkitutako Sail desberdinetan.

### **III.3 GOBERNU-EKINTZAREN ONDORIOZ EUROPAR BATASUNEAN EGINDAKO JARDUKETAK**

Jarraian azaltzen dira xehetasunez euskal instituzioek Europar Batasuneko instituzioetan 2013an egindako jardueraren urrats nagusiak, gehien errepikatu diren jarduketak eta ukitu diren gaiak, Euskadiren eskumenak eta Erkidegoan esku hartzeko arloak kontuan izanda.

## **1. Jaurlaritzako eta beste euskal instituzio batzuetako goi mailako kargudunek Bruselara egindako bisita instituzionalak**

Jarraian zehazten dira Eusko Jaurlaritzako maila goreneko kargudunek 2013an zehar Bruselara egindako bisita instituzionalak, eta bisita bakoitzaren gaia.

- Apirilaren 23an, Iñigo Urkullu Lehendakariari harrera egin zion Europako Batzordeko Lehendakari José Manuel Durao Barroso jaunak; Barne Arazoetako Komisario Cecilia Malmström andrearekin elkartu zen eta laneko bazkari bat izan zuen Europako Batzordeko lehendakariorde eta Lehiarako Komisario Joaquín Almunia jaunarekin. Egun berean harrera-jai bat ospatu zen Belgikako euskal komunitatearekin Euskadiren EBko Ordezkaritzan.

Apirilaren 24an, Europako Kontseiluko Lehendakariak, Herman Van Rompuy jaunak, harrera egin zion Euskadiko Lehendakariari.

Durao Barrosorekin egin zuen bileran, Urkullu Lehendakariak Jaurlaritzaren Programa azaldu zion eta Euskadik Europaren erronka ekonomiko, sozial eta politikoei aurre egiteko dituen proposamenak aurkeztu zituen. Europako Batzordeko Lehendakariak biziki balioetsi zituen Urkullu Lehendakariak azaldutako proposamenak aurrekontua saneatzeko eta gizarte-ongizatea babesteko, osasunean eta hezkuntzan egin beharreko inbertsioak mantenduz, kalitate handiko enpleguaren aldeko apustua eginez, eta beti garapen jasangarria, kohesioa, berrikuntza eta sormena oinarri hartua.

Malmstrom Komisarioarekin egindako bileran, Bake eta Bizikidetzaren Planaren oinarriko printzipioak aurkeztu zituen Lehendakariak eta Euskadik gaur egungo PEACE programan parte hartzearen garrantzia azpimarratu zuen (Ipar Irlandan aplikatu den bakearen eta adiskidetzaren aldeko EBren programa da PEACE).

Almuniarekin elkartu zenean, austeritate-denborarako duen hazkunde-programa aurkeztu zion Lehendakariak eta Euskal herria ukitzen duten ontziolentzako laguntzen espedienteak zertan diren galdetu zion.

- Europako Batzordeak 2013ko uztailaren 17an finantza-errentamenduaren gaineko akordio batzuei aplikatzeko Zerga erregimenari buruz hartutako Erabakia (Tax Lease esaten zaiona) dela-eta, Iñigo Urkullu Lehendakaria Bruselara joan zen 2013ko uztailaren 11n, gaiak ukitzen zituen beste Autonomia Erkidego batzuetako Lehendakariarekin batera, Europako Batzordeko lehendakariorde eta Lehiarako Komisario Joaquín Almunia jaunarekin elkartzeko. Industria, Energia eta Turismoaren Ministroa, José Manuel Soria, izan zen delegazioaren buru, eta Lehendakariaren gain Galiziako Xuntako Lehendakaria, Alberto Nuñez Feijoo, eta Asturiaseko Lehendakaria, Javier Fernandez, ere joan ziren hitzordura. Topaketaren helburua, Batzordea hartuzera zihoan Erabakiari buruzko informazioa jasotzea zen eta azkeneko ahalegina egitea politikoki presionatzeko, ontzigintzaren sektorean izango zituen eragin negatiboak arintzen saiatzeko.
- Apirilaren 22an, Arantza Tapia Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailburuak bisita instituzionala egin zion Maire Geoghegan-Quinn Ikerketa eta Berrikuntzako Europako Komisarioari eta Günter Oettinger Energiako Komisarioari. Euskal I-G+B sistemari buruzko informazioa eman zion eta

energia arloko euskal estrategia azaldu zien. Era berean, Eskualde Politikako Zuzendaritza Nagusiko (DG, REGIO) ordezkari batzuekin ere elkartu zen.

- Uztailaren 3an Osasun Sailburua, Jon Darpón, joan zen Bruselara “Reference Site Star” sari europarra, euskal instituzioek berrikuntzan oinarritutako zahartzeko aktibo eta osasuntsua bultzatzeko egindako lana aitortzeko emana, jasotzera.
- Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako Sailburuordeak bilera-sail bat egin zuen Europako Batzordeko ordezkariarekin eta Hezkuntza, Gazteria eta Kulturako Europako Komisioaren Kabineterekin eta Europako beste bazkide batzuekin.
- Joxean Muñoz Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak hainbat bilera egin zituen Europako bazkide eta instituzioekin kontaktatzeko eta segimendua egiteko. Era berean, Hezkuntza, Gazteria eta Kulturako Europako Komisioaren Kabineteburuarekin eta Europako MEDIA Antena koordinatzailearekin elkartu zen, Euskadiren posizionamendua sendotzeko Creative Europe 2014-2020 Programa martxan jartzeko eta Antena Media Euskaditik Antena Creative Europe Euskadirako urratsa finkatzeko.
- Itziar Alkorta Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak maiatzaren 31n laneko agenda izan zuen Europako Batzordeko Eskualde Politika, Hezkuntza, Enplegu eta Ikerketako Zuzendaritza Nagusietako arduradunekin eta Hezkuntza, Gazteria eta Kulturako Europako Komisarioaren Kabineterekin.
- Jorge Arévalo Lanbide Heziketako sailburuordea urriaren 2an eta 3an Europako Batzordeko Hezkuntzako Zuzendari Nagusiarekin elkartu zen, eta halaber instituzio horretako Enplegu, Enpresa eta Industriako Zuzendaritza Nagusietako goi mailako karguekin eta Lanbide Heziketa Garatzeko Europako Zentroko (LHGEZ, CEDEFOP) eta Europako plataformetako adituekin. Hainbat bilera egin ondoren, Europako Batzordeak nabarmendu zituen Euskal Autonomia Erkidegoaren bikaintasuna eta praktika onak lanbide-heziketan, Euskadirentzat, bertako profesionalentzat aukera interesgarriak irekitzeko bidean.
- Estibaliz Hernaez Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordeak eta Leire Bilbao Teknologia eta Estrategiako zuzendariak, Europako Batzordeak eta Flandriako gobernuak Europako Parlamentuan antolatutako “Regions as motors of new growth through smart specialisation – matching strategies for common goals” jardunaldian parte hartu zuten azaroaren 8an.
- Estibaliz Hernaez Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordeak Kris Peeters, Flandriako Ministro Lehendakariak antolatutako bileran parte hartu zuen. Bilera horretara Europako hamar bat eskualde izan ziren deituak, guztiak ere industrializazio-maila handia eta espezializazio inteligenteko estrategia asmo handikoa dituztenak. Bileraren helburua ikuspegi bateratua eramatea zen Europako Kontseiluak 2014ko martxoan Europako politika industrialari buruz egingo duen debatera. Bilera Bruselan izan zen, azaroaren 8an, "Abangoardiako Eskualdeak" izeneko strategiaren barruan.
- Euskadiren estrategia turistikoa eta “Basque Country” marka posizionatzeko xedearekin, Itziar Epalza Merkataritza eta Turismoko sailburuordeak “Tourism in Europe: Attracting New flows” goi mailako topaketan parte hartu zuen Europako Parlamentuan 2013ko irailean. Topaketa nagusi horretan, Eusko

Jaurlaritzaren turismo-politika izan zen Europako erreferente gisa hautatu ziren bost politiketako bat.

- Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako Sailburuordea otsailaren 21ean mintzatu zen NPDLk (Hizkuntza-aniztasuna sustatzeko sarea) eta Europako bazkideek antolatutako *Europako hizkuntzei eta hizkuntza-politikari buruzko urteroko konferentzia europarrear*.
- Sergio Murillo Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko Pertsonen Autonomia Sustatzeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko zuzendari nagusia Europako Integrazio Foroan izan zen Bruselan 2013ko ekainaren 4an.
- Donostia 2016ko ordezkari batek Europako Kultura Foroan parte hartu zuen (Europako Batzordeak antolatutako ekimena). Era berean, “Fenêtre ouverte Pays Basque” kultura-programan (2013ko azaroan eta abenduan) parte hartu zuten euskal kultura- era sormen-sektoreko ordezkariekin batera, Etxepare Institutuarekin eta “Jeunesses Musicales”ekin koordinatuta.
- Juan Diego BEAZ Bizkaian ekonomia eta berrikuntza sustatzeko sozietate publikoko zuzendariak 2013ko martxoaren 8an parte hartu zuen Euskadiren EBko Ordezkaritzan egin zen *Creative Europe programak irekitako finantzabide, aukera kultural era perspektiba berriei buruzko konferentzian*. Europako instituzioek antolatutako European Design Days jardunaldietan ere parte hartu zuten.
- Getxoko Alkateak ACES Europe Galan parte hartu zuen Europako Parlamentuan, 2014ko Europako kirol-hiri izendatu zutenean Getxo (Bizkaia).

## **2. Euskadiren errealitatea Europan proiektatzea eta Erkidegoko aktualitateko gaitan posizionatzea**

Errealitatea eta posizionatzea aipatzen ditugunean, aipatu nahi ditugu Erkidegoko instituzioekin izandako harreman guztiak, era batera edo bestera, Euskal Autonomia Erkidegoaren jarrera helarazteko, Euskadiren interes sektorialak defendatzeko edo gure herriarentzat funtsezkoak diren gaitan posizionatzeko.

Era horretan, hainbat aurkezpen egin dira Europako Batzordean, Europako Parlamentuan eta beste erakunde batzuen aurrean, funtsezko gaitan Euskadi egiten ari den lana erakusteko, hau da, gizarte-berrikuntzan, Korporazioen Gizarte Erantzukizunean, Estrategia Energetikoan egiten ari dena azaltzeko eta ikerketa eta berrikuntzarako ditugun programak edo lankidetzak deszentralizatukoak esplikatzeko.

Erkidegoan aktualitate handikoak diren arloei buruz ditugun jarrera eta ekarpenak helarazi dizkiegu Europako instituzioei: Kohesio Politika, Egiturazko eta Inbertsioko Funtzak, Itsas eta Kosta Turismoa edo lankidetzak deszentralizatua.

Euskadik aktiboki parte hartu du OPEN DAYS jardunaldien 9. edizioan, 2013ko urriko bigarren astean, 2014tik 2020rako Europar Batasunaren lehentasunezko ekintzak eta ekimenak definitzeko eta EBko Finantzaketa Programak aldatzeko prozesua bete-betean zenean. Open Days horiek urteko hitzordua izaten dira Europako eskualdeen eta hirien praktika onak eztabaidatzeko eta elkarrekin trukatzeko, hazkundera, enplegu-sorkuntza eta lehiakortasuna bultzatzeko. Europako sareek eta bazkideek, eta baita Europako instituzioek ere, marko horretan antolatutako hainbat forotan parte hartzea eskatu zioten Euskadiri, eta Euskal Herriak Europako debatean parte hartu du, eskualdeek Europaren eraikuntzan duten parteak, politika industrialak eta klusterren papera edo subsidiarotasuna bezalako esparruetan duen esperientzia azalduz.

2013an zehar, ahalegin berezia egin da Euskadi KIC (Knowledge & Innovation Communities, Jakintza eta Berrikuntza komunitateak) esaten zaien horietan kokatzeko, batez ere Zahartze Aktibo eta Osasuntsuaren eta Manufaktura Aurreratuaren esparruan eta Kroes Komisarioak bultzatutako Enplegu Digitalaren Koalizio Handiari gure ekarpena egiteko.

Era berean, lan handia egin da hainbat proiektuari aholkularitza emateko eta proiektu horiek bultzatzeko, esate baterako, Euskadik (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta Bilboko udalaren bidez) parte hartu du Europar Batasunak lagundutako "Lurralde-lankidetzarako aliantza horizontala" proiektu estrategikoan, Nazio Batuen Garapenerako Programako (UNDP) ART Programaren koordinaziopean eta Europako tokiko eta eskualdeko hamar agintariren parte-hartzearekin.

Era berean, beste proiektu batzuk sostengatu dira, hala nola BEAZen hautagaitza "Europako Barruti Sortzailea" izateko; Bilbao Ekintzarena, Berrikuntzaren Europako Hiri izateko; Getxoko udalerrarena, 2014ko Europako Kirol Hiri izateko, edo Donostiarena 2016ko Europako Kultura Hiri izateko.

Era berean, Antena MEDIA Euskal Herria aldatzeko eta Creative Europe 2014-2020 programaren baitan Creative Desk MEDIA Euskadi bihurtzen laguntzeko lan egin da, eta Liburutegi Euskal Liburutegi Digitala Europako Liburutegi Digitalean eta European Library atarian (Europako erreferentziako liburutegi nagusien lineako atarian) sartzeko, eta Euskadiko Hizkuntza klusterra (LANGUNE) Hizkuntza Industriaren Europako Plataformako kide izateko.

2013an nabarmentzekoak dira, halaber, Atlantikoko Itsas Estrategia inplementatzeko egindako jarduketak. Gai horri dagokionez, Euskal Herriko Itsas Foroak estrategia horretako lanak koordinatzeko lantalde bat sortu zuen bere garaian, Eusko Jaurlaritzaren Europako Gaietarako Zuzendaritza, Energiaren Euskal Erakundea, Basquetour, AZTI, Tecnalía, Bilboko Portua, Uniport,... partaide hartuta. Gainera, Estregia horren Ekintza Planaren barruan, Europako Batzordeko MARE Zuzendaritza Nagusiari helarazi zaizkio euskaldunon interesak ahalik eta ondoen defendatzeko eta bermatzeko egokitzat jo diren ohar eta ekarpen guztiak.

Era berean, Euskadi ere han zen Arku Atlantikoko Batzordeak Atlantikoko Estrategiaren ibilbide-orria abiarazi zuenean maiatzaren 16-17an Porton egindako bileretan kohesio-politikaren barruan.

### **3 Dosier interesgarri batzuk tratatzeko baliagarri izan diren beste bisita eta elkarretaratze batzuk**

Euskal instituzioen ohiko eginkizunetan sartzen da Europar Batasunean jarduketak egitea. Alde horretatik, azpimarratzekoa da 2013an zehar hainbat kontaktu formal nahiz informal egin direla Lehiaren Zuzendaritza Nagusiko arduradunekin, euskal instituzioek Lehiaren eta Estatuaren Laguntzen Zuzenbideari buruzko dossier batzuen inguruan duten jarrera azaltzeko.

Lehiaren eta Estatuaren Laguntzen Zuzenbidearen araudiaren erreformari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak bere jarrera helarazi du Lehiaren Zuzendaritza Nagusiak egindako kontsulta publikoetan parte hartuz, zehazki, onartu berria den "minimis" laguntzen Erregelamenduari buruzko kontsulta publikoetan edo I+G+B laguntzen marko komunitarioari buruzkoetan, edo eskualdeak xede dituzten estatuaren laguntzen Gidalerro berriei buruzkoetan.

Estatuaren Laguntzei buruzko dossierren inguruan, Eusko Jaurlaritzak bere jarrera defendatu eta helarazi du dagoeneko itxita dauden espediente batzuetan, horien artean Magefesarena, ikus-entzunezko produkzioari laguntzeko programena edo nekazaritza, elikadura eta arrantzako I+G+Brako laguntzena edo euskara sustatzeko laguntzena.

Aipatu beharreko beste gai bat Euskadi ukitzen duten Erkidegoko zuzenbideko arau-hausteen prozedurei buruzkoa da. Arlo horretan, bilerak egin dira Europako Batzordeko ordezkariekin dosierrak desblokeatzeko. Adibide gisa, Eusko Jaurlaritzako Garraio Zuzendariak eta Eusko Treneko Zuzendariak Mugikortasun eta Garraio Zuzendaritza Nagusiari (DG MOVE) egindako bisita, Batzordeak gero, euskal agintariek emandako azalpenak egokitzat jota, azkenean artxibatzea erabaki zuen proiektu pilotu baten inguruan.

Gainera, euskal ekonomian garrantzitsuak diren sektoreetarako, hala nola arrantza-sektorerako, interesgarriak diren topaketak eta Jaurlaritzako kargudunentzako laneko agendak antolatu dira, iritziak eta esperientziak elkarrekin trukatzeko eta interes bereziko kontaktuak egiteko (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Zuzendaria, Euskaltzaindiaren zuzendaritza...).

Bestalde, Euskadiren Ordezkaritzak Euskal Fondoak antolatutako *Europar Batasunaren lankidetzaren eta aliantza berrien arloko ekimenei buruzko informazio-batzarra* konferentzian parte hartu zuen Getxon 2013ko abenduaren 9an. Konferentzia horretan EBren lankidetzaren arloko ekimenak aurkeztu ziren eta bertan izan ziren Euskal

Fondoko partaide diren euskal udaletako ordezkariak eta proiektuetan parte hartzen duten nazioarteko bazkideen ordezkariak.

#### **4. Aktualitateko konferentzia eta debateetan izandako parte-hartzea. Euskal Herriarentzat interesa duten ekitaldi eta informazio-bilerak antolatzea eta betara joatea.**

Brusela da Europako Erkidegoko jardueraren hiriburua eta, beraz, aktualitateko konferentzia eta debateetan esku hartzeko lekurik aproposena. Konferentzia eta debate horietan lor daiteke gure instituzioen eta enpresen intereseko informazioa eta jarduteko aukerak ere bertan topa daitezke.

2013an nabarmentzekoa da, esate baterako, Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkariak urriaren 8an Europako Batzordek eskualde-diplomaziari buruz antolatutako konferentzia/debatean izandako parte-hartzea. Europako Batzordeak hurbiletik jarraitzen ditu Euskadi egiten ari den praktika onak Europan parte hartzeko eta posizionatzeko eta landutako esperientzia partekatzeko beren lana Europar Batasunean sendotu nahi duten Europako beste bazkide eta eskualde batzuekin.

Era berean, Brusela da lekurik onena zuzenean lehen eskuko informazioa jasotzeko han egiten diren bilera eta debateetan, gero Euskadira helarazteko kasu batzuetan behar izaten den arintasunarekin.

2013an zehar, Parlamentuan eta Europako Batzordean, Eskualdeetako Komitean, Europako Ekonomia eta Gizarte Komitean eta hainbat organizazio ekonomikotan barne-merkatuari, justizia eta giza eskubideei, gizarte-berrikuntza eta korporazioen gizarte-erantzukizunari buruzko gaien inguruan antolatutako hainbat ekitalditan eta informazio-bileratan izan dira Bruselako Ordezkaritzako langileak.

Kohesio Politikaren inguruko ekitaldietan ere parte hartu da, eta horrek garrantzi handia du kontuan izanda 2013an debatitu eta onartu dela Urte anitzeko 2014-2020 marko finantzarioa eta garrantzitsua izan da, halaber, Lehiaren Zuzendaritza Nagusiko Estatuaren laguntzetarako "Country Coordinators"en bilera. Esate baterako, oso interesgarria izan da jakitea 2014-2020 epealdirako Egiturazko Funtsen gaineko Erregelamenduei buruzko negoziazioen eta kohesio-politikaren barruan sartu direla Ipar Irlandarako PEACE IV programa berriaren inguruko jardun-lerroak.

Era berean, nabarmentzekoak dira Batzordeko Itsas Gaietako eta Arrantzako Zuzendaritza Nagusiarekin (DG MARE) izandako topaketak Itsasoko eta Arrantzako Europako Funtsaren 2014-2020 Programa Operatiboari eta Elkartze Akordioari buruz eztabaidatzeko; Ikerketako Zuzendaritza Nagusiak Horizon 2020 programa berria aurkezteko antolatutako ekitaldi ugariak; eta baita itsasontzigintzaren hazkunde jasangarria bultzatzeko "LeaderShip 2020" estrategiaren aurkezpena joatea ere.

Energia Zuzendaritza nagusiaren (DG ENER) eta aipatutako DG MAREren topaketetan parte hartzea, itsas energiaren garrantzia indartzei buruz eta Euskadik arlo horretan duen erreferente-posizionamenduari buruz mintzatzeko, eta bikaintasun unibertsitarioko Europako ranking-ari buruzko bileretan eta unibertsitatea-enpresa foro europarrean parte hartzea.

Aurkezpenak ere egin dira Bruselan, adibidez, Euskal Osasun Sistemaren (OSAKIDETZAN) informazio- eta komunikazio-teknologiaren erabilera ezagutzera emateko.

Garrantzikoak izan da baita ere euskal Udal batzuek eremu honetan egindako jarduerak; bereziki aipatzekoak, Batzordearekin egindako bilerak Gasteizko Udalaren "Denda txikien lehiakortasuna hobetzeko eta teknologikoki modernizatzeko" proiektua finantzatzeko aukerei buruz.

Bestalde, Euskadiren Bruselako Ordezkaritza leku egokia da euskal instituzioek eta eragileek interes bereziko pertsonekin, organizazioekin, elkarteekin eta ordezkari instituzionalekin topaketak antolatzeko. 2013an zehar ekitaldi eta bilera ugari egin dira Ordezkaritzaren egoitzan politika publikoen ia esparru guztietan.

## **7. Eranskinean** ikus daitezke ekitaldi horietako batzuk.

Hori dena, Europako Erkidegoko instituzioak eta errealitatea ezagutzeko asmoz Bruselara hurbiltzen diren euskal ikasle eta gazteei ematen zaien laguntza ahaztu gabe. Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren iritziz, garrantzi handia du jarduerak horrek, datozen belaunaldiak Europarekiko izango duten interesa hazten lagunduko baitu.

2013an zehar Bruselako Ordezkaritza bisitatu dute Leizaola Fundazioak, Zuzenbideko ikasleek (martxoaren 15ean). ESEUNEko ikasleek (apirilaren 18an) eta Francisco Javier de Landaburu sariaren irabazleek (irailaren 11n).

Bruselatik kanpo, azpimarratzekoa da 2013an TEN-T (Europa Barneko Garraio Sare) berriaren aurkezpena joan izana Helsinki-Tallínera. Politika berriak garraio-sare zentral bat ezartzen du, 9 korridore nagusitan oinarritua, eta horietako bat, Atlantikoko korridorea (Lisboa-Estrasburgo), Euskadin zehar pasatzen da euskal Ytik. Horregatik zen hain garrantzitsua ekitaldi hori.

Euskadin ere antolatu dira Europako gaietarako garrantzitsuak diren ekitaldi batzuk Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren laguntzarekin. Esate baterako, Máire Geoghegan-Quinn Ikerketa, Berrikuntza eta Zientziako Europako Komisarioak azaroan egindako bisita; apirilaren 11n Euskalduna Jauregian egindako "Agenda Digitala 2013" eta Bilbon abenduaren 3an eta 4an egindako "Animalien Elikadurari buruzko Nazioarteko III. Kongresua: Elikagaien Segurtasuna eta Elikagaien Ekoizpena"; "Lurralde lankidetzarako aliantza horizontala", irailaren 26koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta Bilboko Udalak bultzatutako ekimena.



## **5. EBren inguruko sare, organizazio eta foroetan egindako lana**

Lobby lana eta sareko lana funtsezkoak dira Europar Batasunean dugun papera sendotzeko eta finkatzeko. Horregatik, Bruselako Ordezkaritzatik batez ere, denbora asko ematen da eta ahalegin handia egiten da gure intereseko sare eta foro transbertsal nahiz sektorialekin kontaktatzeko, eta Euskadik erreferente gisa sare eta foro horietan egiten duen lana finkatzeko.

**8. Eranskinean** kontsulta daitezke Euskaditik 2013an zehar lan egin den sare nagusiak.

Sareetako lanaz gain, funtsezkoa da Europako beste eskualde batzuekin batera egiten den lana. Azpimarratzekoa, 2013an Flandriaren EBko Ordezkaritzan iraultza industrial berrian klusterrek duten paperaz antolatutako konferentzia. Euskadiren ekarpena kluster-politikan duen 20 urtetik gorako esperientzia izan zen, eta egiten dituen praktika onak partekatu zituen beste eskualde batzuetako ordezkariekin, zehazki, Eindhoven (NL), Picardie (FR), Tampere (FI), Extremadura (ES), Vidzeme (LV), eta Flandriako (BE) ordezkariekin.

## **6. Europako Erkidegoko zuzenbideari buruzko espedienteak jakinarazteko eta komunikatzeko jarduketak**

Aipatu dugun bezala, euskal instituzioen ohiko lanen artean sartzen da, eta naturala da, Europar Batasunean jarduketak egitea. Europako Erkidegoko zuzenbidea bete beharrak sortzen dituen obligazioen ingurukoak izaten dira batez ere.

Arlo honetan nabarmentzen dira, alde batetik, Lehiaren eta Estatuaren Laguntzen Zuzenbidearekin zerikusia duten jarduketak. Alde horretatik, egunero lan egiten da Euskal Autonomia Erkidegoan emandako laguntzen espedienteak Europako Batzordeari jakinarazten, hala agintzen dutenean, eta Batzordeak dossier jakin batzuei buruz informazioa emateko ezarritako betekizunak betetzen eta laguntzei buruzko datu estatistikoak bidaltzen. 2013an azpimarratzekoa da irailean C-184/11 auziko (mini-oporrak eta kreditu fiskalak) ahozko ikustaldian EBko Justizia Auzitegian egindako agerraldia. Auzi horren behin betiko epaia aurten eman da, 2014ko maiatzaren 13an.

Gai honetan aipatzeko da, halaber, 2013ko otsailaren 7an topaketa bat antolatu zela Bruselan Lehiaren Zuzendaritza Nagusiko zerbitzuekin, Magefesa espedientearen ebazpenean (2009/2322 arau-haustearen prozeduran) aurrera egiteko. Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Estatuko Abokatutzak espediente hori ixteko egindako izapideen barruan sartu behar da bilera hura. Orain formalki artxibatuta dauka espedientea Europako Batzordeak.

Eta, beste alde batetik, aipatu beharrekoak dira Europako Erkidegoko zuzenbideko arau-hausteengatik Euskal Autonomia Erkidegoari ireki zaizkion prozedurei buruzko informazioa eta dokumentazioa bidaltzeko egindako jarduketak.

Alde horretatik, nabarmentzekoa da Europako Gaietarako Zuzendaritzak, Estatuko Administrazioarekin egiten diren komunikazioak Autonomia Erkidegoan koordinatzeko ardura duen organoa denez, bi gai horien inguruan Jaurlaritzako sailekin egindako lan pedagogikoa.

Azkenik, puntu honetan azpimarratu nahi dugu 2013ko azaroaren 6an, URA - Uraren Euskal Agentziak parte hartu zuela Europako Batzordeko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiarekin arau-hausteen prozedurei buruzko Paketeko Bileran. Bilera hartan tratatu zen Euskal Autonomia Erkidegoa ukitzen duen espediente bat, oraindik behin betiko ebatzi gabe dagoena. Paketeko bilera horiek egiten dira Europako Erkidegoko zuzenbideko arau-hausteen prozeduretako espedienteak ebazteko.

## **7. Erkidegoko gaien komunikazioaren eta zabalkundearen inguruko jarduketak**

Euskal instituzioek Europan ere sustatzen dute gardentasunaren politika eta Administrazioa herritarrei hurbiltzea, instituzioetan egiten duten lana proiektatuz IREKIA bezalako atarien bidez, komunikabide desberdinak ere bertan integratuta.

Bestalde, Europako Informazioaren Euskal Sarean (EIES) [www.revie.euskadi.net](http://www.revie.euskadi.net) webgunea jarri da martxan. Webgune horrek aldizkari elektroniko bat argitaratzen du aktualitateko gaiak, deialdiak, lizitazioak, bazkideak bilatzeko bideak, eta Europako agenda ezagutzera emateko, eta aktualitateko gaien gainean egindako txosten tekniko oso baliagarriak ere eskaintzen ditu. Harpidetza pertsonalizatuaren bidez funtzionatzen du, alerta-sistema pertsonalizatuak ere baditu, eta EAEko erreferentziako webgunea izatera iritsi da Europako gaiei buruzko informazioan: EBko eguneroko albisteak, finantzaketarako eta lizitazioetarako irekitako deialdiak, aktualitateko egutegia, bazkide-bilatzea, mugikortasunari eta Europako enpleguari buruzko informazio-kutxak eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak 2013an egindako 100 txosten tekniko baino gehiago.

#### **IV. ETORKIZUNERAKO PROPOSAMENAK**

Txosten honen hasieran adierazi dugun moduan, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak landutako Kanpo Harremanetarako Plan Estrategikoaren helburu garrantzitsuen artean dago Europaren eraikuntzan, besteekin batera, partaide eta erantzule izatea, eta horretarako diseinatu dira ekintza-lerro batzuk euskal instituzioek etorkizunean Europar Batasunean egingo dituzten jarduketak inspiratzeko.

Sarreran esaten da, halaber, 2014a urte berezia dela Europaren testuinguruan. Aldaketa politikoen urtea da. Europako Parlamenturako hauteskundeak izan dira eta gehiago parlamentariotik sortutako Batzorde berria izango dugu (Lehendakaria bederen). Bi gertaera horiek aukera ona dira Europaren proiektuan eta eraikuntzan sakontzeko, eta datozen bost urteetarako nolako Europa behar dugun erabakitzeko. Barrutik begiratuta, garrantzitsuak dira, euskal instituzioen jarduera murriztuta geratuko delako, esate baterako, Jaurlaritzako, Aldundietako eta bestelako instituzioetako kargudunek Komisarioei bisitak egiteko garaian.

Beste alde batetik, Urte anitzeko 2014-2020 marko finantzario berria dugu, diseinatzen ari diren Programa Operatiboekin. funtsak eta finantza-tresnak konbinatzeko aukera berriekin, eta hori, dudarik gabe, lan-arlo garrantzitsua izango da, Jaurlaritzako sailekin koordinatuta eta, behar denean, beste euskal instituzio batzuekin koordinatuta egin beharrekoa.

Une honetan, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia esparru horretan inbertsio-tresna berriak eskuratu ahal izateko mekanismo berriak bilatzen ari da.

Europako Batzorde berriak plan eta programa berrien arabera lan egingo du, Kontseiluko txandako Lehendakariaren haritik, eta oraingo Batzordeak dagoeneko marraztutako bideetatik, esaterako, Europa 2020 Estrategiaren bidetik. Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian adi-adi egongo gara Europako instituzioek egiten dituzten plangintzen berri izateko eta Euskadira helarazteko, eremu honetan sortzen diren sinergiekin ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak hainbat proposamen landuko ditu 2014an eta hurrengo urteetan, euskal instituzioek esparru transbertsalean nahiz sektorialetan jardun dezaten. Era berean, Erkidegoko esparru sektorial desberdinetan jarduteko Jaurlaritzako sailek edo bestelako euskal instituzioek interesekotzat jotzen dituzten jarduketei sostengua emango die.

##### **A) Transbertsalki jarduteko proposamenak:**

- Euskal instituzioek Europar Batasuneko instituzioetan eta organoetan –bereziki, Kontseiluan eta Kontseiluko lantaldeetan eta Europako Batzordeko komiteetan– parte-hartzea bultzatzea, areagotzea eta sendotzea.

2014an, Euskadi da autonomien ordezkaria EBko Lehiakortasun Kontseiluko Kontsumoaren arloan lehenengo urte erdian; bigarren urte erdian, Euskadi izango da autonomien ordezkari Enplegu, Gizarte Politika eta Osasun Kontseiluko (EPSSCO) Enplegu eta Gizarte Politikaren arloan eta Hezkuntza, Gazteria, Kultura eta Kirol Kontseiluko Gazteriaren arloan.

EBko Ekonomia eta Finantza Kontseiluko (ECOFINeko) lantaldeetan parte hartzen jarraituko da bai Jaurlaritzatik eta bai Foru Aldundietatik.

Ordezkaritza horiek egikaritzean, Euskadirentzat ahalik eta efikazia eta eraginkortasun handiena bilatuko dugu, eta eskatzen dituzten konpromiso guztiak zorrotz betetzen saiatuko gara.

Era berean, ordezkariak beste Autonomia Erkidego batzuei esleitu zaien Europako Batzordeko komiteetan ere parte hartzen jarraituko dugu. Zehazki, 11 komite dira guztira.

Gainera, CARUEko Koordinatzaileen Batzordeak, apirilaren 8an Madrilan egindako saioan, aurreko bileran esleitu gabe utzi zituen Europako Batzordeko Horizon 2020 komiteak esleitu zituen. Guztira 15 Horizon 2020 komite daude irekita autonomiek parte hartzeko. Horietatik 13tan parte hartzea eskatu zuen Euskadik eta 12tan ordezkariak esleitu digute, orain hasten den epealdiko urte desberdinetan. Hau da, bere garaian erabakitako ordezkari-sistemaren arabera, Komite bakoitzak lau urteko ordezkari-aldia du, eta lau Autonomia Erkidegori esleitzen zaie urte bana. Era horretan, Euskadi urtebetez izango da ordezkari esleitu dizkioten 12 komiteetan, beste Autonomia Erkidego batzuekin txandaka.

- Eskualdeetako Komiteari dagokionez, urte-hasieran erabakitzen du laneko programa Europako Batzordearen legegintzako programaren arabera. Programa horretan identifikatzen dira eskualdeko eta tokiko eskumenak eta interesak ukitzen dituzten ekimenak eta, beraz, ESKOren irizpena behar dutenak. Eusko Jaurlaritzak irizpen horietan Euskadiren interesa defendatzeko lan egingo du. Horretarako, interesgarritzat jotzen dituen kontsulta guztiei, baita programatu gabeei ere, erantzun die, Jaurlaritzaren jarrera eta, kasua bada, gaiari buruz dituen politikak azaltzeko. Bide beretik, euskal instituzioen praktika onak Europan aurkeztea sustatuko da. ESKOko Automobilgintzako Taldeartean parte hartzen jarraituko da sektore hori bultzatzeko eta defendatzeko. ESKOko "Osasuna" Taldeartean ere jarraituko da.
- Subsidiarioritasunari buruz, Eusko Jaurlaritzak parte hartuko du gai horren gainean egiten diren kontsultei erantzunez eta antolatzen diren bestelako jardueren bitartez. Era berean, Jaurlaritzak eskaintza bat egin dio Eusko Legebiltzarrari, arlo horretan egiten ari den lana arrazionalizatzeko.
- Aurreikusita dago urrian "Growing together – Smart investment for people" izenburupean egitekoak diren Open Days Jardunaldietan parte hartzea, Autonomia Erkidegoarentzat interesgarritzat jotzen diren mintegietan.
- Europar Batasunaren inguruko gaietarako konferentzian parte hartzen jarraitzeko asmoa ere badago, guretzat interes handiena duten gaietan, hala nola Autonomia Erkidegoek parte hartzeko irekita dauden EBko Kontseiluko formazioen kopurua handitzeko errebindikazioan eta parte-hartzea gero eta eraginkorragoa izan dadin egin beharrekoetan. Konferentzia horretako Koordinatzaileen Batzordea indartzeko xedearekin, Europako Gaietarako Zuzendaritzak lan egingo du parte hartzeko bide berriak irekitzeko eta lehendik daudenak hobetzeko.
- Estatuko Administrazioa – Euskadi Bitariko lankidetzaren batzordea, Europako gaiei eta kanpo harremanei dagokienez, berraktibatuzeko ahalegina bikoiztea.
- Administrazio gisa dagokigun eginkizuna, Europako gaiei zabalkundea emateko eta Europa Hobeto Komunikatzeko, Europaren eraikuntzan egiten diren aurrerapenen eta Euskadin duten eraginaren berri emateko, indar handiagoz bultzatzea. Horretarako, beste tresna batzuen artean, Europako Informazioaren Euskal Sarea (EIES) daukagu, Eusko Jaurlaritzak, hiru Foru Aldundiek, EUDELe,

Merkataritza Ganberek, Euskadiko Europe Direct zentroek, SEAk, Euskal Herriko Unibertsitateko eta Deustuko Unibertsitateko Europako Dokumentazio Zentroek osatua. Alde horretatik, oraintsu sartu dira sarean beste hiru kide: Eurobask (Europar mugimenduko euskal kontseilua) eta Bizkaiko eta Donostiako Europe Direct zentroak. EIES sarearen helburua Euskal Autonomia Erkidegoan Europari buruzko informazioa emateko baliabideak optimizatzea da, Europako Gaietarako Zuzendaritzak koordinatzen du eta EBko aktualitateari buruzko informazio osoa emateko webgune bat du: [www.revie.org](http://www.revie.org).

Alde horretatik, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak, sinergiak aprobetxatuz eta dauden baliabideak optimizatuz, EBko aktualitateari zabalkundea emateko erabilgarri dauden lankidetzaren eremu guztietan –instituzio publikoek, Unibertsitateek, Eurobaskek edo beste edozein eragilek jartzen dituztenetan– parte hartuko du, EIESeko kideekin sortzen diren sinergiak baliatuz, jakina.

- Beste gai bati helduta, lankidetzaren prozesu bat dago martxan Europar Batasuneko Erkidegoa Zabaltzeko Zuzendaritza Orokorrekin: Europako Gaietarako Zuzendaritzak lankidetzan dihardu Europako Batzordeko Erkidegoa Zabaltzeko Zuzendaritza Orokorri atxikitako Asistentzia teknikoko eta Informazioa Trukatze Zentroarekin, Europar Batasuneko legeriaren transposizioa egiteko EBn sartzeko hautagai diren estatuetan. 2014an, Europako Gaietarako Zuzendaritza lankidetzan ari da, zehazki, Europako Batzordearekin Mazedoniako hiru funtzionario Euskadira bisitan etor daitezzen, zuzenean ezagutu ahal izateko eguneroko aplikazioa haien intereseko hainbat arlotan, esaterako, eleaniztasunari dagokionean.
- Eusko Jaurlaritzako sailekin eta EAeko gainerako instituzioekin koordinatzea eta kolaboratzea, interesekoak diren Europako politika publikoen jarraipena egiteko eta euskal instituzioek Europako instituzioetan ahalik eta parte-hartze handiena izan dezaten, eta Europako Erkidegoko zuzenbidetik sortutako obligazioak zuzen betetzeko.
- Azkenik, horregatik garrantzi gutxiagokoa ez den gai bat: Batasuneko Tratatuak erreformatzeko planteamenduren bat egiten bada, Euskadik, egoki bada, bere jarrera aurkeztuko du, lehen ere egin izan duen bezala, eta Erkidegoan dagokien instituzioei helaraziko die.

## **B) Sektorialki jarduteko proposamenak:**

Zein dira Europar Batasunean 2014rako eta hurrengo urteetarako politika publikoetan aurreikusitako joerak eta jardura-lerroak? Eta horiek kontuan izanda, zein proposamen sektorialetan egingo du lan Euskadik?

Europar Batasunean aurkitzen dugunari eta aurkituko dugunari buruz, aurreratu dugu Urte anitzeko marko finantzarioko programa berriek Europa 2020 Estrategiaren lehentasunak sostengatuko dituztela, inbertsioa, enplegua, gizarte-inklusioa, giza kapitala eta hazkundera zuzeneko inpaktua duten erreformak bultzatuz. 2014an hasiko da aplikatzen Europako Urte anitzeko marko finantzario berria, Europako Egiturazko eta Inbertsioko Funtsen kargura, hazkundera bultzatzeko eta lanpostuen sorrera indartzeko. EBk lan egingo du Egiturazko eta Inbertsioko Funtsen programa operatiboak Europa 2020 Estrategia betetzeko bidetik exekutatzeko direla eta

ikerketara, IKTetara, ETEetara eta karbono-emisio apaleko ekonomiara bideratutako espezializazio inteligenterako ezarritako lehentasunetan kontzentratzen direla segurtatzeko.

Adi egon behar dugu sinergiak bilatzeko egiturazko funtsen eta Horizon 2020 eta COSME bezalako beste funts batzuen artean, Euskadik ahalik eta probetxu handiena atera ahal izan diezaion Erkidegoko finantzaketari, oso kontuan hartuta Europako Inbertsio Bankuaren eta Europako Inbertsio Funtsaren sostengu finantzarioa lortzeko aukerak.

Garrantzitsua izango da, halaber, Atlantikoko Itsas Estrategia, Makroeskualde-Estrategia gisa garatzea eta Euskadik bere intereseko garapen ekonomikoko proiekturen batean lekua izatea.

Fiskalitateari dagokionez, EBk jarraituko du aztertzen politika fiskalak, kontzepzioaren nahiz aplikazioaren aldetik, nola lagun diezaiokeen ondoen Batasuneko ekonomiari, inbertsioa eta kontsumoa sustatuz. Era berean, deklaratu gabeko lanpostuen eta zerga-iruzurraren aurkako borroka indartuko du.

Zeharkako zergen lege-proposamen konkretuak lantzen jarraituko du, BEZari, zerga bereziei eta finantza-transakzioen zergei buruz, eta, zuzeneko zergen aldetik, sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarri kontsolidatu komunaren, iruzurraren aurkako borrokaren eta lankidetzaren administratiboaren inguruan jardungo du.

Europako energia-politikaren 2014rako lehentasunen artean, energia-merkatu integratua lortzeko, energia-horniduraren segurtasuna eta sektorearen jasagarritasuna bideratzeko neurriak daude.

2014ko mugari handienetako bat izango da energia-iturri fosilak deskarbonizatzeko eta energiaren prezioa merkatuzko mekanismoak bilatzeko eta industriaren lehiakortasunean duen inpaktuan eragiteko politika bat garatzea.

2014rako barneko energia-merkatu bat lortzeko helburuak sare-azpiegitura eskuragarri, irisgarri, efiziente eta segurua eskatzen du. "Europa Konektatu" mekanismoa aplikatzeak aukera emango du EBko aurrekontua mobilizatzeko sektore pribatuaren inbertsioa sare-azpiegitura estrategikoetan katalizatzeko.

Funtsezko beste ekimen eta lehentasun batzuk izango dira hidrokarburo ez-konbentzionalen erauzketa segurua, efikazia energetikoa eta energia berriztagarrien erabilera,

Enpleguaren eta Gizarte Gaien arloan neurri aktiboak indartuko dira lan-merkatuan, enplegu-zerbitzu publikoen funtzionamendua hobetuko da, hazkunde bizkorreko sektoreetan enplegua sortzea eta langileen mugikortasuna bultzatuko dira. Beharrezkoa da hezkuntzan eta prestakuntzan inbertitzen jarraitzea, lanbide-heziketa eta ikaskuntza dualeko sistemak barne, eta pertsona ahulenen eta zaugarrienen premiei erantzutea.

Gazteen langabeziaren aurkako borroka funtsezko lehentasuna da EBrentzat. Gazteen Garantia martxan jarriko da eta lehentasun horiek denak indartuko dira urte anitzeko 2014-2020 marko finantzarioan Europako programak aplikatuta, hala nola Erasmus+, Enplegu eta Gizarte Berrikuntzako Europako Programa, Globalizaziora Egokitzeko Europako Funtsa eta Premia handiena dutenei laguntzeko Europako Funtsa.

Hurbiletik jarraituko dugu Nekazaritza Politika Bateratuaren 2014-2020 epealdirako erreforma. Aldaketa garrantzitsuak egin ditu laguntzen banaketan, eta zuzeneko laguntzen eredu berriaren erronka handiena izango da ordainketa bakarretik (eskubide historiko indibidualetan oinarritutakotik) oinarritzko ordainketara pasatzea, hektareen arabera, eta ordainketa berdera, zenbatekoak banatzeko eskualde-eredu batean oinarritua. Labore iraunkor guztiak "berdeak" izango dira definizioz, dentsitate-mugarik gabe, larreak barne, eta horrek mesede egiten dio Euskadiri.

EBren azpiegituren politika berriak Europa barneko garraio-sare handi bat (TEN-T) jarriko du martxan, Batasuneko 28 Estatuak zeharkatuko dituen hazkundea eta lehiakortasuna sustatzeko. Garraio-azpiegituren finantzaketa hirukoiztu egingo da 2014-2020 epealdian eta 26.000 milioi eurora iritsiko da.

Bide handi horietako bat Euskaditik pasatuko da. Atlantikoko korridoreak Lisboa eta Estrasburgo lotuko ditu, Iberiar Penintsula eta Frantzia zeharkatuta, eta Euskaditik *euskal* Ytik pasatuta.

Europako politika industrialaren helburua da hazkunde ekonomikoaren bidera itzultzea eta enplegu-sorkuntza sustatzea, azkenean, 2020an, industriaren pisua Barne Produktu Gordinaren (BPGaren) %20ra hel dadin.

Europan egiteko jarduketa-sail bat aurreikusi da industria modernizatzeko, berrikuntzan, teknologia berrietan, kualifikazioetan eta finantzaketa eskuratzeko aukeretan inbertituz, Europako funts espezifikoekin laguntzarekin bizkortuta.

ETEEK Europako agendaren epizentroan jarraituko dute, hazkundeari, enpleguari eta gizarte-kohesioari egiten dioten ekarpenagatik. 2014a izango da COSME programaren abioko urtea. Batez ere ETEei zuzentzen zaien programa horrek 2.300 milioi euroko dotazioa izango du 2014-2020 epealdirako eta ekintzak bideratuko ditu nagusiki ETEei finantzaketa –kapital nahiz mailegu moduan– lortzeko bidea erraztera, merkatuetan sartzen laguntzera, Batasunaren barruan bereziki, Batasuneko enpresen lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetzera, eta ekintzailtza eta enpresa-kultura bultzatzera.

EBk Ingurumen arloan dituen jarraibide nagusiek ingurumena errespetatuz baliabideak efizientziaz erabiliko dituen ekonomia baten kontzeptua eta klimaren aldeko anbizio handiko ekintza bat dituzte jomuga.

Lehentasun horiek garatzeko eta ulergarri egiteko asmoarekin, Europako instituzioak hainbat tresnaz jantzi dira azken urteotan: 2050erako karbono gutxiko ekonomia lehiakor baterako ibilbide-orria; balibideak efizientziaz erabiliko dituen Europa baterako ibilbide-orria; Ingurumeneko Europako 7. Ekintza Programa; eta, aurki, 2020-2030 epealdirako klima eta energiari buruzko marko estrategikoa.

Datozen zazpi urteetarako (2014-2020) programazio-aldi berriarekin bat etorriz, Europar Batasunak I+Gko programa berria atera du: HORIZON 2020. EB azken urteetan jasaten ari den lehiakortasun-problema gainditzeko xedearekin, lortu nahi da Egiturazko Funtsak eta ikerketa, garapen eta berrikuntzarako jarritako funtsak Europa 2020 Estrategiaren helburuekin koherenteak izateko moduan diseinatzea. Laburtuz, jakintzan eta balio erantsiaren sorkuntzan oinarrituta orientatu nahi da Europaren ekonomia, gizartearen erronkei eta premiei erantzuteko modu jasangarrian. Azken finean hazkunde zentzudun, jasangarri eta berritzailea, 70.200 milioi euroko diru-kopuruarekin.

Hezkuntza-sektorearen bikaintasuna indartzea, lotura estuagoa bultzatzea unibertsitateen eta lanbide-heziketako zentroen eta enpresen artean, eta kulturak, sormenak eta hizkuntzak garapenerako palanka gisa duten papera azpimarratzea eta kultura- eta hizkuntza-aniztasuna sustatzea izango dira Europako agendako gai nagusiak 2014an esparru honetan.

2014a oso garrantzitsua izango da hemendik eta 2020ra arteko finantzaketa-ekintza eta pakete guztia hobeto aprobetxatu ahal izateko egiturak finkatzeko kanal eta estrategia egokienak ezartzeko. Aurten landu ahal izango dira finantza-tresna berriak (Creative Europe Programan eta Erasmus+en sartuak) Euskadik ere optimoki aprobetxa ditzan.

EBren turismo-politikaren ekintzak sektorearen jasangarritasunean eta lehiakortasunean zentratzen dira. Atlantikoko Estrategiaren markoan, kostala- eta itsas turismoari ari zaio ematen lehentasuna EB.

2014ko ezaugarria izango da European helmuga turistikoaren lehiakortasuna, jasangarritasuna eta bikaintasuna bultzatzea, Europako kalitate-adierazleak eta zigiluak alde batera utzi gabe. Era berean, EBk ibilbide kulturalak sustatuko ditu eta turismo-sektorean IKTak erabiltzea bultzatuko du. Proiektuak eta ekimenak COSME programaren bidez eta deialdi espezifikoen bidez finantzatuko dira.

Garapenerako lankidetzaren arloan, 2014-2020 epealdian, Europako Garapen Funtsarekin batera martxan jarriko dira 8 finantza-tresna ardatz tematikoen eta lehentasun geografikoen arabera multzokatuta, eta GKEek, tokiko agintariek eta entitate pribatuek parte hartzeko aukera izango dute.

Lankidetzaren deszentralizatua eta aliantza berriak, beste hainbat ekimenekin batera – hala nola European Aid Volunteers, lankidetzaren arloan Europako partaidetza estrategikoak edo nazioarteko eta Europako foroetan parte hartzea– izango dira lehentasunen agenda osatuko dutenak, eta arlo estrategiko horiek Euskadiren interesekoak dira.

Teknologia medikoaren hobekuntzak lagun dezake EBren lehiakortasun globala indartzen eta enplegua sortzen, eta gainera kostuak murrizten eta osasun-zerbitzuaren efizientzia hobetzen. Horregatik, negoziatzen jarraituko da dispositibo medikoei buruzko proposamenen, in vitro diagnostikoa egiteko produktu sanitarioei buruzko proposamenen eta botiken prezioa finkatzeko neurrien gardentasunaren gainean.



2014ko martxoaren erdi aldean, "Hazkunderako Osasuna" programaren lehenengo irakurketa onartu da. Programa horrek 450 milioi euroko dotazioa du 2014-2020 epealdirako, eta dagoeneko aurkeztu da 2014 osorako laneko programa.

Merkatu bakar erabat integratua eta interkonektatua izatera iristeko, nahitaezkoa da telekomunikazio-sareen azpiegitura eskuragarri, irisgarri, efiziente eta segurua edukitzea. Eta horretarako inbertsio pribatua nahiz publikoa mobilizatu behar da. "Europa Konektatu" mekanismoa, 2014-2020 epealdirako 1.142 milioi euroko aurrekontua duena, bitarteko ona izango da sektore pribatuaren inbertsioa telekomunikazio-sareen azpiegiturretan katalizatzeko. Helburu horri lagunduko dio, bestalde, onartzen denean, abiadura handiko komunikazio elektronikoen sareen ugaltzea murrizteko neurriei buruzko proposamena onartzeak.

Eta hori dena gobernantza ekonomikoaren eta banku-batasunaren, diskriminazioaren aurkako borrokaren, herritarrei eta gutxiengoei maila handiko babesa eman nahiaren, mugak ahalik eta ondoen kudeatzeko premiaren eta Europak orain bizi duen uneari egokitutako defentsa- eta segurtasun-politika baten markoan.

Testuinguru horretan, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren xedea da 2014an eta hurrengo urteetan Euskadiren irudi ahalik eta onena proiektatzea Europar Batasunean. Gobernantza-modu berri gisa, beste eskualde batzuekin lankidetzan jardutearen aldeko apustua egin nahi dugu, proiektu berriak lortzeko erakunde pribatu eta publikoen arteko lankidetzaren, sarean lan egitearen aldeko apustua.

Izan ere, azaldu dugun bezala, urteak daramatza Euskadik era horretako sareetan lanean eta aurrerantzean ere jarraitzeko asmoa du.

Adibide gisa, maiatzaren 20an European Regions for Innovation in Agriculture, Food and Forestry (ERIAFF) sareak antolatu zuen tailer batean ponentzia bat aurkeztu zuen HAZI Fundazioaren ordezkari batek, basoen kudeaketako berrikuntzan, zuraren erabileran eta basozaintzako zerbitzuetan eskualdeek izan dezaketen lankidetzari buruz. Sare horrek 2014ko irailaren 11n egingo du Urteko Konferentzia, eta Iñigo Urkullu Lehendakariak emango dio hasiera.

Eusko Jaurlaritzako Garraio Zuzendaritzak Periferiako Itsas Eskualdeen Konferentziaren (CRPM) baitako Arku Atlantikoko Batzordeko garraioaren lantaldea koordinatzen jarraituko du, eta sare horretako itsas energien lantaldean ere jarraituko du. Paul Ortega Garapen Lankidetzarako Euskal Agentziaren zuzendaria izango da Konferentzia horretako garapenerako lankidetzari buruzko Lantaldearen lehendakaria 2014ko irailetik aurrera.

Parte hartzen jarraituko dugu Network of European Regions for a Sustainable and Competitive Tourism (NECSTOUR) sare europarrean eta egiten dituen ekintza estrategikoetan, eta Europako Eskualdeen Ikerketa eta Garapenerako Sareko (ERRIN) energia eta klima-aldaketako lantaldearen bileretan. Eta Europako Eskualdeen Ingurumen Konferentzian (ENCORE), kontuan izanda, gainera, Eusko Jaurlaritza Zuzendaritza Komitean dagoela. Ocean Energy Forum-ekiko lankidetzat bultzatuko da, itsas energien garrantzia eta Euskadik arlo horretan duen erreferente-posizioa indartzeko. Eta itsas industriak defendatzeko proposamenak aurkezteko helburua duen "Blue Growth" Eskualde Sarean, Euskadirentzat oso garrantzitsua delako, eta RIM+ (Regional Innovation Monitor) Plataformarekin lankidetzan arituko gara. Eta CORAL (Community of Regions for Assited Living) sarean, eta Network to Promote Linguistic Diversity (NPLD) sarean. Hezkuntzaren arloan Euskadi izango da lehendakari bi urtez European Association of Regional and Local Authorities for Lifelong Learning

(EARALL) sarean, eta horrekin Euskadik lanbide-heziketan duen posizioa finkatu eta sendotuko da.

Aurrera egin nahi dugu Abangoardiako Eskualdeen Ekimenean, ekimen horretan baitaude, Euskadik bezala, krisitik irteteko metodo gisa manufaktura aurreratuaren aldeko apustua egin duten lurraldeak. Mundu osoan lehiatzeko gai izango diren Europan zeharreko balio-kateen sorrera sustatzeko xedearekin, Abangoardiako Ekimenak, Europako Batzordearekin batera, Fabrikazio Aurreratuko Espezializazio Inteligenteko Plataforma jarriko du martxan. Euskadin, Fabrikazio Aurreratuak elkartzen du gaitasun-kontzentrazio handiena, baliabide zientifiko eta teknologikoak metatzeari eta I+Gko emaitzei dagokienez, eta baita ikerketaren hartzaille eta ustiatzaille diren sektore enpresarialaren dimentsioari dagokienez ere.

Euskadik, Europar Batasunarekin erabateko sintonian, onartu berri du RIS3 Espezializazio Inteligenteko Estrategia. Estrategia hori lantzen parte hartu duten Jauriaritzako sailak zuzenean inplikaturik daude I+G estrategian, eta gaiaren inguruko beste instituzio eta agente publiko nahiz pribatu batzuekin kontrastatu da. Europar Batasunak ezarritako prozedura metodologikoak baliatu dira, eskualdeek lehiakor eta diferentziatu izan daitezkeen gaitasunetan espezializatu behar dutela oinarri hartuta.

Manufaktura Aurreratuan eta Osasunean dugun jakintza eta esperientzia eramango dugu KICetara (Jakintza eta Ikerketa Komunitateetara).

Euskal Herriak (Mondragon Korporazioa, Tecnalia, IK4, Mondragon Unibertsitatea eta EHU) bultzatzen eta koordinatzen du balio erantsiko fabrikazioko jakintza eta berrikuntzaren etorkizuneko komunitatea lideratzeko hautagaitza. Proiektu estrategiko hau funtsezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoa Europako jakintzaren eta ekintzaitzaren aliantzaren buruan kokatzeko esparru horretan. Deialdia 2016rako dago aurreikusita.

Gainera, Euskadik (Osakidetza, Bioef, Kronigune, Tecnalia, IK4, Mondragón Korporazioa, EHU-Euskampus, Matía Fundazioa) Europako beste bazkide batzuekin batera, osasun arloko Jakintza eta Berrikuntzaren Komunitatea lideratzeko hautagaitza ere aurkeztuko du.

Eta, jakina, Europarekiko jakin-mina eta kezka duten euskal ikasleei eta gazteei harrera egiten jarraituko dugu, legealdi honetan pertsonekin dugun konpromisoaren barruan. Gazteak Gobernu honen oinarritzko helburua dira. Aurten, apirilaren 1etik 3ra bitartean, Eusko Jauriaritzako Gazteria Zuzendaria, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko Lehendakariarekin batera, laneko misioan izan zen Europako instituzioetan eta Europako gazteen plataformetan. Erasmus+ Programako "Gazteria" ardatzaren inguruko informazioa emateko saio bat ere antolatu da Euskadin. Maiatzean Lanbide Heziketako Nazioarteko Kongresua egin da Donostian, Europako Batzordearen partaidetzarekin.

Enpresen eta unibertsitatearen arteko lotura estutzeko lan egingo da, eta Euskadin Ikaskuntzarako Europako Aliantzaren eta hezkuntza espezializatuari buruzko Europako foroetan parte hartzea sustatuko da.

Euskal instituzio guztiak inplikaturik gara kultura indartzen eta gure hizkuntza, euskara, sustatzen. Alde horretatik, eta hiriek duten rola indartze aldera, aurtengo urtarrilaren 29an Bilboko alkateorde Ibone Bengoetxeak Eskualdeetako Komiteetan parte hartu du. Euskal kultura eta sormenaren sektorea bultzatuko dira eta Donostia 2016, euskal zinema eta talentua sustatuko dira, Etxepare Institutuarekin lankidetzan. Eta

Euskadiren parte-hartzea bultzatzen jarraituko da Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Sarean (Network to Promote Linguistic Diversity, NPLD).

Ez dugu ahaztuko Euskadiren bokazio solidarioa eta gizarte justuago eta orekatuago baten alde lan egiteko konpromisoa, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin eta euskal udalekin batera jardungo dugu lankidetzaren deszentralizatuko hainbat proiektu estrategikotan.

Konferentziak eta topaketak antolatzen jarraituko dugu Bruselako Ordezkaritzan, gure praktika onen erakusleho onenean, Euskadiren intereseko bisitak eta kontaktuak sustatuz, eta Europako instituzioetan bilerak eginez era guztietako eragile politiko, sozial nahiz ekonomikoekin.

Arreta berezia jarriko dugu Europaren aldeko mugimendua eta kontzientzia indartzen Euskadin, Eurobasken eta antolatzen dituen sari eta jardunaldien laguntzarekin. Europar kontzientzia, Euskal Herriko jendeak berezkoa duena, gero eta beharrezkoagoa da bizi dugun mundu globalizatu honetan, erronka guztiei ahaleginez eta ilusioz heltzeko.

## 1. ERANSKINA.

### EUSKADIK ESKUALDEETAKO KOMITEAN IZANDAKO PARTE-HARTZE PRESENTZIALAREN LABURPEN-TAULA

Ekitaldia	Ordezkarria	Jarduketa	Data
100. Osoko bilkura	<b>Marian Elorza,</b> Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia	ALDE Talde Politikoaren bilera Espainiaren Ordezkaritzako bilera Osoko Bilkura	2013.04.11 2013.04.12
101. Osoko bilkura	<b>Marian Elorza</b>	ALDE Talde Politikoaren bilera Espainiaren Ordezkaritzako bilera Osoko Bilkura ESKoko Lehendakariarekin elkartzea	2013.05.30
102. Osoko bilkura	<b>Marian Elorza</b>	ALDE Talde Politikoaren bilera Espainiaren Ordezkaritzako bilera Osoko Bilkura REGLEG-EELB eskualde arteko taldea	2013.03.07 2013.07.04
104. Osoko bilkura	<b>Marian Elorza</b>	ALDE Talde Politikoaren bilera Espainiaren Ordezkaritzako bilera Osoko Bilkura REGLEG-EELB eskualde arteko taldea	2013.11.28 2013.11.29
Subsidiarotasunari buruzko VI. <b>Gailurra</b> – Berlin	<b>Marian Elorza</b>	<b>Mintzaldia:</b> Subsidiarotasun-printzipioaren aplikazioa Euskadin	2013.12.18
Subsidiarotasunaren arloko <b>aditu-taldea</b>	<b>Mikel Anton,</b> Europako Gaietarako zuzendaria	Hiri-mugikortasunaren eta hondakin-politikaren <b>analisi</b>	2013.06.13
Subsidiarotasunaren arloko <b>aditu-taldea</b>	<b>Mikel Anton</b>	Subsidiarotasunari buruzko 2014ko laneko programa lantzeko Batzordearen legegintzako programaren <b>analisi</b>	2013.12.17
Lurralde-inpaktuaren ebaluazioari buruzko <b>adituen tailerra</b> (subsidiarotasuna)	Ejko Portu Zuzendaritzaren ordezkarria	ESPON tresnaren <b>analisi</b> Erkidegoko arauen lurralde-inpaktua ebaluatzeko metodo gisa, Portuen paketea adibide gisa hartuta	2013.09.25
<b>Open Days konferentzia:</b> "Lurralde-inpaktuaren ebaluazioa: lurralde-koheresia lortzeko eta legeria hobetzeko tresna bat" (subsidiarotasuna).	<b>Xabier Unanue,</b> Lege Garapen eta Arau Kontrolerako zuzendaria	Eusko Jaurlaritzako arauen kalitatearen ebaluazioari buruzko <b>mintzaldia</b>	2013.10.09
Berrikuntzarako Batasuna <b>konferentzia:</b> Europako eskualdeen eta hirien ekarpena	<b>Estíbaliz Hernáez,</b> Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordea	Eusko Jaurlaritzaren Espezializazio inteligenteko estrategiei buruzko <b>ponentzia</b>	2013.11.27



Komunikazio Publikoaren <b>4. Europar Konferentzia</b> EUROPCOM, Erkidegoko instituzioen laguntzarekin	– <b>Luis Petrikorena Arbelaiz</b> Gobernu Irekirako Zuzendaritza (Open Government)	IREKIAren <b>aurkezpena</b>	2013.10.16 2013.10.17
Garapenerako Lankidetzaren Deszentralizatuari buruzko <b>3. konferentzia</b>	<b>Paul Ortega,</b> Garapen Lankidetzarako Euskal Agentziaren zuzendaria	Euskadik lankidetzaren deszentralizatuaren duen 28 urtetik gorako esperientziari buruzko mintzaldia	2013.04.09 2013.04.10
Garapenerako Lankidetzaren Deszentralizatuari buruzko <b>3. konferentziako mintegia</b>	<b>Paul Ortega</b>	Uraren kanonaren eta parte solidarioaren esperientzia berritzaileari buruzko <b>mintzaldia</b>	2013.04.09
Automobilaren Taldeartearen <b>konferentzia</b>	Euskadiren EBko ordezkaria	Automobilaren sektorearen berrikuntza bultzatzeko, egiturazko funtsei Euskadin emandako erabilerari buruzko <b>ponentzia</b>	2013.11.27

## 2. ERANSKINA.

### EUSKO JAURLARITZAK ESKUALDEETAKO KOMITEAN AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Irizpenaren izena	Sailek landutako zuzenketak	Aurkeztutako zuzenketak	Onartutako zuzenketak
Deszentralizazioa EBn	2	2	2
EBko araudia egokitzea	10	9	8
Ingurumen Inpaktua Ebaluatzeko (IIE) Direktiba berrikustea	4	4	2
Lurralde-inpaktuaren ebaluazioa	8	8	7
Mugaz gaindiko langileak barne-merkatuak 20 urte egin dituenen	2	0	0
Europaren hondakinen arloko helburuen berrikuspena	3	3	3
Hiri eta erkidego inteligenteak. Berrikuntzarako Europako Elkartea	1	1	1
Energia garbia garraiorako:	5	5	4
Trenbideei buruzko 4. paketea	2	2	2
Eskualdeko eta tokiko enteen ikuspegia hidrokarburo ez-konbentzionalei buruz.	31	10	0
Gastua hobetzeko gomendioa	3	3	2
Makroeskualde-estrategiak	1	1	1
Estatu-laguntzak aireportuei eta aire-konpainiei	4	3	2
<b>GUZTIRA</b>	<b>76</b>	<b>51</b>	<b>34</b>

## 3. ERANSKINA.

**BESTE ESKUALDE BATZUEK LANDUTAKO ETA ESKUALDEETAKO KOMITEAN EUSKADIREKIN BATERA AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

<b>Babesa eskatu zuen eskualdea</b>	<b>Jasotako zuzenketak</b>	<b>Euskadik babestutako zuzenketak</b>
<p><b>Andaluzia</b></p> <p>Esnea ekoizteko kuotak, 2; genero-oreka enpresetan, 9; tabakoa, 7; desgaitasunak dituztenen kirola eta aisia, 4</p>	22	15
<p><b>Aragoi</b></p> <p>Ingurumeneko ekintza-programa, 5; ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa, 1; gazteen enplegua, 2; genero-oreka enpresetan, 1; hiri eta erkidego inteligenteak, 4; energia garbia, 7; mugaz gaindiko langileak, 1; hidrokarburo ez-konbentzionalak, 17</p>	38	27
<p><b>Asturias</b></p> <p>Lurralde-inpaktuaren ebaluazioa, 2; hiri eta erkidego inteligenteak, 2; gizarte-arloko inbertsioa, 5; arrantzarako eta akuikulturarako laguntzak, 1; makroeskualde-estrategiak, 1; itsas plangintza, 3; Batzordearen legegintza-arloko programa, 1</p>	15	10
<p><b>Balear Uharteak</b></p> <p>Energia garbia, 1; energiaren barne-merkatua, 5; hidrokarburo ez-konbentzionalak, 1; automobilgintza, 2; makroeskualde-estrategiak, 1</p>	10	7
<p><b>Kanariak</b></p> <p>Ikerketa eta berrikuntza indartzea, 1; hezkuntzaren arloko kontzeptu berria, 2; Europako industria sendoagoa, 2; energia garbia, 1; energiaren barne-merkatua, 4; tabakoa, 7; elkertasun-funtsa, 1; portuen arloko politika, 2; aireportuetarako laguntzak, 5</p>	25	17
<p><b>Gaztela eta Leon</b></p> <p>Ikerketa eta berrikuntza indartzea, 2; premia handia dutenentzako laguntza-funtsa, 2; esnea ekoizteko kuotak, 2; ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa, 4; energia garbia, 2; energiaren barne-merkatua, 4; EBren aurrekontua, 1; kirola, aisia eta desgaitasunak dituzten pertsonak, 2; makroeskualde-estrategia, 5; Batzordearen legegintza-arloko programa, 1</p>	25	16



<p><b>Gaztela-Mantxa</b></p> <p>Premia handia dutenentzako laguntza-funtsa, 2; hezkuntzaren kontzeptu berria, 2, Europako industria sendoagoa, 1; ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa, 1; gazteen enplegua, 6; genero-oreka enpresetan, 2; lurralde-inpaktuaren ebaluazioa, 2; energiaren barne-merkatua, 1; plastiko-hondakinak, 2; gastua hobetzeko politika, 1; hidrokarburu ez-konbentzionalak, 1; Europa barneko telekomunikazio-sarea, 2; pentsuen gaineko kontrol ofizialak, 2; kirola, aisia eta desgaitasunak dituzten pertsonak, 4; elkartasun-funtsa, 1; hondakinen politikaren berrikuspena, 1</p>	31	21
<p><b>Katalunia</b></p> <p>Landa-eremuen garapena, 1; aireportuetarako estatu-laguntzak, 1; makroeskualde-estrategiak, 3</p>	5	3
<p><b>Extremadura</b></p> <p>Interneteko datuen biltegia, 2; araudiaren egokitzapena, 5; banda zabala, 2; energia garbia, 1; kirola, aisia eta desgaitasunak dituzten pertsonak, 9; industria siderurgikoa, 3; Batzordearen legegintza-arloko programa, 4</p>	26	8
<p><b>Galizia</b></p> <p>Esnea ekoizteko kuotak, 1; gazteen enplegua, 1; hondakinei buruzko politikaren berrikuspena, 2; automobilgintza, 8; gizarte-arloko inbertsioa, 6; plastiko-hondakinak, 3; gastua hobetzeko politika, 1; nekazaritzaren garapen jasangarriari buruzko jarraibideak, 10; arrantzarako eta akuikulturarako laguntzak, 6; pentsuen gaineko kontrol ofizialak, 8; makroeskualde-estrategia, 1; elkartasun-funtsa, 1; trenbideei buruzko paketea, 5</p>	53	40
<p><b>Errioxa</b></p> <p>Hezkuntzaren arloko kontzeptu berria, 10; kirola, aisia eta desgaitasunak dituzten pertsonak, 6; ijitoen integrazioa, 1.</p>	17	8
<p><b>Madril</b></p> <p>Hezkuntzaren arloko kontzeptu berria, 2; gazteen enplegua, 1; genero-oreka enpresetan, 5; plastiko-hondakinak, 2; arrantzarako eta akuikulturarako laguntzak, 3; pentsuen gaineko kontrol ofizialak, 2; gizarte-arloko inbertsioa, 2</p>	17	3
<p><b>Valentziako Erkidegoa</b></p> <p>Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa, 2; azpiegitura berdea, 15; landa-eremuen garapena, 3; Batzordearen legegintza-arloko programa, 1</p>	21	3
<p><b>Hospitalet de Llobregat</b></p> <p>Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa, 7</p>	7	0

<p><b>BESTE ESKUALDE BATZUK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Madeira:</b> Aireportuetarako laguntzak, 3; arrantzar eta akuikultura, 1; elkartasun-funtsa, 2; portuen arloko politika, 2</li> <li>- <b>Eskozia:</b> EBren deszentralizazioa, 4</li> <li>- <b>Houten hiria (NL):</b> Plastiko-hondakinak, 8</li> <li>- <b>Harguita County Council ( PL):</b> Epe luzerako finantzaketa, 4</li> <li>- <b>Pomorskie eskualdea (PL):</b> Hidrokarburu ez-konbentzionalak, 50</li> </ul>	<p>9</p> <p>4</p> <p>8</p> <p>4</p> <p>50</p>	<p>0</p> <p>4</p> <p>0</p> <p>0</p> <p>49</p>
<p><b>ALDE talde politikoa osatzen duten eskualdeak</b></p> <p>Gizarte-arloko paketeko inbertsioa, 13; ekintzaitzako ekintza-plana, 11; Europako ekonomiaren finantzaketa, 8; tren-eremu bakarra, 1; Europa barneko telekomunikazio-sarea, 17; aireportuetarako laguntzak, 2; kirola, aisia eta desgaitasunak dituzten pertsonak, 3; EBren elkartasun-funtsa, 2; industria siderurgiko jasangarria, 1; ijitoen integrazioa, 13</p>	<p>71</p>	<p>16</p>
<p><b>Guztira</b></p>	<p><b>458</b></p>	<p><b>247</b></p>

#### 4. ERANSKINA.

##### EUSKADIK ESKOn ERANTZUNDAKO GALDETEGIAK

- A. Europa 2020 Estrategiaren inguruko galdetegiak:
1. Globalizazioaren garairako industria-politika (2013ko martxoan)
  2. Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurkako Europako plataforma (2013ko maiatza)
  3. Europarako Agenda Digitala (2013ko maiatza)
  4. Baliabideak eraginkortasunez erabiliko dituen Europa (2013ko ekaina)
  5. Berrikuntzaren aldeko Batasuna (2013ko azaroa)
- B. Euskadirentzako funtsezkoak diren beste gai batzuetako galdetegiak:
1. Barne Araudiaren Berrazterketa (2013ko otsaila)
  2. Elkartze-akordioak (2013ko apirila)
  3. Itsas eta kosta-turismoa Europan (2013ko apirila)

##### EUSKADIK ESKOn AURKEZTUTAKO PRAKTIKA ONEN ADIBIDEAK

- Informazioaren gizartea: "Euskal Agenda Digitala 2015"
- Pobrezia eta gizarte-bazterkeria:
  - o SENDOTU proiektua (EAE-EGF programa eragilea)
  - o BZI – Baliabide Zentro Integrala (Berrikuntza minusbaliotasunaren eta enpleguaren zerbitzura)
- Baliabideen erabilera eraginkorra: Tokiko jasangarritasuneko praktika onak IHOBEko EAE 2012n
- Berrikuntza: Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Euskal Sarea eta aipaturako praktika ona proiektatzeko zuen Standa.

## 5. ERANSKINA.

### EUSKAL HERRIAK PARTE HARTU DUEN EUOPAR BATASUNeko NEKAZARITZA ETA ARRANTZA KONTSEILUKO LANTALDEEN BILERAK

#### Nekazaritza

- Nekazaritzako Egituren eta Landa Garapenaren taldea:
  - Martxoaren 7an
  - Ekainaren 4an
- Nekazaritzako Gai Horizontalen taldea
  - Zuzeneko ordainketak eta Erregelamendu horizontala:
    - Otsailaren 6an
    - Otsailaren 21ean
    - Ekainaren 7an
  - Merkatu Antolakunde Bateratu (MAB) Bakarra:
    - Otsailaren 27an
- Nekazaritzako Baliabide Genetikoaren taldea
  - Apirilaren 3an
- Elikagaien Kalitatearen taldea
  - Nekazaritza ekologikoa:
    - Apirilaren 16an
- Animalia Produktuen taldea
  - Erlezaintza eta ezta:
    - Otsailaren 12an
- Ardo eta Alkoholen taldea
  - Mahastiaren eta Ardoaren Nazioarteko Erakundea:
    - Apirilaren 30ena
- Nekazaritzako Gai Finantzarioen taldea (AGRIFIN):
  - Urtarrilaren 25ean
  - Otsailaren 28an
  - Apirilaren 12an
- Basoen taldea:
  - Otsailaren 20an
  - Martxoaren 22an
  - Apirilaren 26an
  - Maiatzaren 8an
  - Maiatzaren 31n
- Fitosanitatearen taldea
  - Babesa eta Ikuskapena:
    - Ekainaren 18an
  - Roosendaal taldea:
    - Otsailaren 13an
    - Apirilaren 19an
  - Hazien eta ugalketako materialaren taldea
    - Maiatzaren 27an
    - Ekainaren 17an
- Albaitaritzako Zerbitziburuen taldea
  - Urtarrilaren 23an
  - Martxoaren 6an
  - Ekainaren 19an

- Albaitaritzako Adituen taldea
  - o Abereen osasuna:
    - Urtarrilaren 29an
    - Apirilaren 30ena
    - Maiatzaren 8an
    - Ekainaren 3an eta 4an
  - o Osasun publikoa:
    - Ekainaren 14an
    - Ekainaren 17an
  - o Postdam taldea
    - Maiatzaren 2an
- Koordinazio-taldeak
  - o FAO
    - Urtarrilaren 23an
    - Martxoaren 7an
    - Apirilaren 10ean
    - Ekainaren 6an
- Codex Alimentarius taldea
  - o CCFICS
    - Otsailaren 1ean
  - o CCGP
    - Otsailaren 4an
  - o CCCF
    - Martxoaren 26an
  - o CCPR
    - Apirilaren 9an
    - Apirilaren 24an
  - o CCFL
    - Apirilaren 30ena
  - o CAC
    - Ekainaren 7an
    - Ekainaren 20an
- Oinarrizko Produktuen taldea
  - Otsailaren 22an

## **Arrantza**

Barne eta Kanpoko Arrantzako taldea:

Urtarrila:	Bilerak hilaren 10, 17, 21, 24 eta 31n
Otsaila:	Bilerak hilaren 1, 5, 14, 15, 21, 22 eta 28an
Martxoa:	Bilerak hilaren 8, 12, 13, 21 eta 27an
Apirila:	Bilerak hilaren 4, 5, 11, 18 eta 26an
Maiatza:	Bilerak hilaren 2, 3, 23, 24, 31n
Ekaina:	Bilerak hilaren 7, 14, 20 eta 21ean

## **6. ERANSKINA.**

### **EUSKAL HERRIAK PARTE HARTU DUEN EUOPAR BATASUNeko EKONOMIA ETA FINANTZA KONTSEILUKO LANTALDEEN BILERAK**

- Zuzeneko zergak (sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarri kontsolidatu komunari buruzko lana, informazio-trukatze automatikoa): 7 bilera Bruselako Ordezkaritzak eta bilera 1 Bizkaiko Foru Aldundiak
- Jokabide Kodea: 4 bilera Bruselako Ordezkaritzak eta 4 bilera Bizkaiko Foru Aldundiak
- Zeharkako zergak (FTZ, Finantza Transakzioen gaineko Zerga): bilera 1 Bruselako Ordezkaritzak
- Zeharkako zergak (BEZ, Balio Erantsiaren gaineko Zerga): 3 bilera Ordezkaritzak
- Zeharkako zergak (Energiaren gaineko Zergak): 2 bilera Ordezkaritzak

## 7. ERANSKINA.

### POLITIKA PUBLIKOEN HAINBAT ARLOTAKO EKITALDIAK ETA BILERAK

- Enpleguari eta gizarte-politikari buruzko bilerak Bizkaiko Foru Aldundiarekin (martxoaren 1ean), Bilboko Udalarekin (azaroaren 26an), MCCrekin (martxoaren 11n eta maiatzaren 28an) edo Novia Salcedo Fundazioarekin (ekainaren 19an eta azaroaren 22an).
- Bizkaiko Enpresari Gazteen Elkartearen bisitak enpresa eta industriari buruz Asociación Española de la Industria de la Ciencia (Inesustar), Tecnalia, Mondragón Korporazioa, etab.ekin.
- Ingurumenari buruzko bilerak Kutxa Ekogunea, IHOBE edo Gasteizko Udalarekin lerro estrategikoei, proiektuei, etab.i buruz.
- Energiari buruzko bilerak CIC Energune, Energia Zuzendaria, Energiaren Euskal Erakundea, IBIL, Cornwall-eko delegazio batekin.
- I+G+Bri buruzko bilerak Asociación Española de la Industria de la Ciencia (Inesustar), Tecnalia, Mondragon Korporazioa, Innobasque, South Smaland (Suedia) Eskualdeko Kontseiluarekin.
- Kulturari buruzko bilerak Bruselako Unibertsitate Librearekin (ULB) et Leuveneko Unibertsitatearekin, unibertsitate horietan euskal ikaskuntzen atala/lektoreak, etab. irekitzeko.
- Creative Europe Programaren inguruko konferentziak (martxoaren 8an); TAFI's (Training artists for innovation) proiektukoak (2013ko apirilaren 9tik 11ra); euskara eta hizkuntza-politikari buruzkoa (2013ko abenduan); eta zinemaren inguruko jarduketak (euskal film laburrak Bruselako zinemaldian) eta euskal kultura eta sormenaren sektoreari buruzkoak.
- Segurtasunaren arloan, irailaren 26an egin zen “Evaluation of Critical and Emerging Technologies for the Elaboration of a Security Research Agenda” (European Security Round Table).
- Garraioen arloan, apirilaren 11n Ordezkaritzan egin zen Eusko Jaurlaritzak koordinatzen duen Arku Atlantikoko garraio-taldearen koordinazio-bilera.
- Elkarbizitzaren arloan, azaroaren 14an harrera egin zitzaion Nagorno-Karabaj eskualdeko bake-prozesuetako aditu-talde bati, Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Elkarbizitza Plana ezagutzera emateko.

## 8. ERANSKINA.

### 2013an ZEHAR EUSKADITIK LAN EGIN DEN SARE NAGUSIAK

- ERIAFF (European Regions for Innovation in Agriculture, Food and Forestry) sarea, nekazaritza, elikadura eta basogintza berritzaileak diren Europako eskualdeak elkartzen dituena, eta EUROMONTANA sarea, Europako mendialdeetako elkarteak.
- REGLEG (Legegintzako Eskumena duten Eskualdeen sarea), gaur egun Friuli-Venezia-Giulia Bulegoa lehendakari duena.
- Periferiako Itsas Eskualdeen Konferentziaren (CRPM) markoan, 2014-2020 Europako Gizarte Funtzari dedikatutako taldea.
- CORAL (Community of Regions for Assisted Living) sarea.
- NPLD (Network to Promote Linguistic Diversity) sare europarra.
- ERRIN (European Regions Research and Innovation Network) sare europarra. ERRIN sareko bileretan parte hartzea, bilera instituzionaletan (Zuzendaritza Komitearen eta lantaldeen liderren bileretan) eta "politikako" eta "berrikuntzaren finantzaketako" lantaldeetako bilera tematikoetan. Era berean, sare horretako fabrikazio aurreratuari buruzko lantaldea lideratzen ari gara orain. Sare horrek egindako hautapenaren arabera, Euskadi da gaur egungo krisi ekonomikoari ongien aurre egiten ari zaizkion eskualdeetako bat.
- EARLALL (European Association of Regional and Local Authorities for Lifelong Learning) sare europarra.
- NECSTOUR (Network of European Regions for a Sustainable and Competitive Tourism) sare europarra.
- ENCORE (Environmental Conference of the Regions of Europe) sarea. Eusko Jaurkitza sare horren Zuzendaritza Komitean dago.
- Periferiako Itsas Eskualdeen Konferentziaren (CRPM) baitako Arku Atlantikoko Batzordeko Garraioaren eta Itsas Energiaren lantaldeak.